


AURRE EGIN ZURRUMURRUARI

*Immigrazioari buruzko zurrumurruei,
estereotipoei eta aurreiritziei aurre
egiteko gida praktikoa*



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ENPLEGU ETA GIZARTE
GAJETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y ASUNTOS SOCIALES

AURRE EGIN ZURRUMURRUARI

Immigrazioari buruzko zurrumurruei, estereotipoei
eta aurreiritziei aurre egiteko gida praktikoa

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ENPLEGU ETA GIZARTE
GAJETAKO SAILA
Gizarte Gaietako Sailburuordetza
*Immigrazioko eta Aniztasuna Kudeatzeko
Zuzendaritza*

DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y ASUNTOS SOCIALES
Viceconsejería de Asuntos Sociales
*Dirección de Inmigración y Gestión de la
Diversidad*

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2012

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke:
<http://www.bibliotekak.euskadi.net/WebOpac>

Argitaraldia:	1.a, 2012ko maiatza
Ale-kopurua:	150 ale
©	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila
Internet:	www.euskadi.net
Argitaratzailea:	Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco Donostia-San Sebastián, 1- 01010 Vitoria-Gasteiz
Egilea:	Immigrazioko eta Aniztasuna Kudeatzeko zuzendaria
Koordinazioa:	Immigrazioko eta Aniztasuna Kudeatzeko zuzendaria
Diseinua eta maketazioa:	EkipoPO
Inprimaketa:	Eusko Jaurlaritzako Inprenta eta Erreprografia Zerbitzua
L.G.	VI 224-2012

Hitzaurrea

Adituek diote aurreiritziek zeregin egokitzailera eta funtzionala betetzen dutela: gure bizitza sinplifikatzen laguntzen digute, ahaleginak eta substantzia grisa "aurrezten" dizkigute eta gizarte-identitatea izatea eta zenbait arauri egokitzea ahalbidetzen digute.

Alabaina, aurreiritziak gizarte-kontzientzian murgiltzen direnean eta talde jakin batzuei lotzen zaizkienean, desberdinen arteko bizirikidetzaren pozoia izaten dira. Batez ere, eraginpean hartutako taldea talde ahulena denean. Horregatik da garrantzitsua aurre egitea.

Ezbairik gabe uste dugu «etorkin» gisa (hainbat arrazoik eraginda beren herrialdeak utzi eta gure bizilagun egin diren pertsonak) etiketatzen dugun pertsona multzo zabal eta heterogeneo horrek gaur egun bereziki bere ospe txar edo aipu beltz partikularrak jasaten dituela. Eta horrek gizarte-integratzaile eta -kohesioarako oso ondorio negatiboak ditu.

Esku artean daukazun lana hainbeste etorkinek nozitzen dituzten aurreiritzi eta estereotipoen aurkako borrokarako tresna txiki bat da, «txapapote» mental gisa itsasten zaizkien ospe txarrak gaintzeko tresna.

«Garai beldurgarriak!- zioen Einsteinek- atomo bat desegitea aurreiritzi bat desegitea baino errazagoa den garaiak». Egia esan, aurreiritziak gure neuronetan itsasten dira, gure bihotzetan habia egiten dute eta askotan gure ekintzak ere gidatzen dituzte. Hemen nagusiki tresna kognitiboak (datuak, argumentuak eta abar) aurkezten ditugu. Badakigu guztiz eskasak izango direla bizipen gehiagorekin konbinatzen ez badira. Ziurrenik, elkarrekin sentitzearen eta



lan egitearen poztasunak liburu hauek baino gaitasun handiagoa izango du aurreiritzia desegiteko.

Alabaina, eskuliburu hau oso baliagarria izan daiteke, immigrazioari eta etorkinei buruzko zenbait ideiarekin hedapen *biralaren* «suebaki» gisa jardun dezakeelako. Informazio objektibo baten bidez pentsaraztea, harri-kartozko arrazoibidean zalantza-elementu bat sartzea, datu akasdu bat zuzentzea, eskubidezko edo berdintasunezko printzipio bat baieztatzea... nahiko ekintza errazak dira eta eragin indartsua izan dezakete, ez soilik ezkerre gisa, baita hazi gisa ere.

Dena den, hemen datua eta argumentua eskaintzen ditugu. Baina xehetasun bat gehiago behar da. Herritarraren definizio gisa honako hau gustatzen zait: herritar izateak «zerbait egiteko lana hartzea» inplikatzeko du. Beraz, beharrezkoa da espiritu zibikoa duen norbaitek – pertsona, talde edo erakunde batek – elkarrizketa publikoan edo pribatuan, errealean edo «birtualean», banakoan edo kolektiboan ideia horiek azalertzeko lana hartzea.

Gure konpromisoa elkarrizketa-sare hori datu, argumentu eta ideia berriei suspertzea eta laguntzea da; horiek guztiak gure lanetik aterako ditugu baina baita elkarrekin partekatu eta eraihi dezakegunetik.

Testu hau egiten lagundu duten pertsona guztiei – testua prestatzen, idazten, diseinatzen, egituratzen, ideiak eztabaidatzen, datuak biltzen eta abarretan ibili direnei – eskerrak emanez amaitu nahi dut sarrera hau. Honako hauek dira laguntzaileak: Edurne Ramón, Miguel Ángel Muñoz, Nadia Eremieva, Franci Fonseca, Rosabel Argote, Susana Cuesta, Xabier Aierdi, Imanol Zubero, Jone Pariza, Ekain Larrinaga, Peio Aierbe, Arkaitz Fullaondo, Laura Caorsi eta Rubén A. Arribas. Pertsona horiek guztiak kultura arteko bizikidetzaren sustapenean konprometituta daude hainbat eremutan (tokiko eta euskal autonomiako erakunde publikoetan, unibertsitatean eta gizarte-sare eta erakundeetan) garatzen duten lanaren bitartez.

Miguel González Martín
Immigrazioa eta Aniztasuna Kudeatzeko zuzendaria
Eusko Jaurlaritzan

Aurkibidea

1	Sarrera	9
2	Testuingurua	11
3	Hartzaileak, erabilerak eta garapenak	13
4	Edukia	15
5	Egitura	17
6	Zurrumurru bakoitzari ekiteko modua	19
	Lehenengo zurrumurrua	21
	Bigarren zurrumurrua	30
	Hirugarren zurrumurrua	40
	Laugarren zurrumurrua	47
	Bosgarren zurrumurrua	58
7	Bibliografia	73



1. Sarrera

Aurreiritziek, estereotipoek edo zurrumurruek errealitatearen ulermena desitxuratzen dute. Beraz, horien aurka borrokatzea funtsezko politika da hobeto integratutako eta aukera-berdintasunean bizi diren herritarrez osatutako gizarte kohesionatuagoa lortzeko. Bide horretan, funtsezkoa da aniztasuna kudeatzen jakitea, kulturarteko bizikidetzaz sustatzea edo ez diskriminatzen ikastea.

Gizarte guztietan, aldaketen aurkako erresistentzia izaten da, eta immigrazioari lotutako aldaketak ez dira salbuespen. Gainera, kultura-aniztasuna azkar areagotu delako edo zenbaitetan etorkinen eta bertakoen artean gertatzen den elkarreragin mugatuaren ondorioz, imaginario sozialaren alderdi negatiboa areagotu egin da.

Beharbada, aurreko egoera horretan biltzen dira zenbait gako, herritarren zati batek dagokigun gairi buruzko politikak deslegitimatzeak, arrazoiak, jarrera eta portaera diskriminatzaileak gertatzeko arrazoiak edo gizarte-eragileek betetzen duten zeregina gutxieteko arrazoiak ulertzeko.

Gainera, krisi ekonomikoak¹ are gehiago zailtzen du gizarte zuzen eta solidario bat sustatzea. Euskal gizartea anitza eta plurala izateagatik nabarmentzen bada ere, egungo egoerak agerian uzten du immigrazioaren inguruko imaginario kolektiboaren alderdi negatiboan areagotzen ari direla. Krisi-garaiak bereziki kontuz ibiltzeko garaiak izaten dira.

¹ Hori ondorioztatzen da Immigrazioaren Euskal Behatokitik (http://www.ikuspegi-inmigracion.net/documentos/barometros/2011/bar_2011_cas.pdf).



Euskadin adostasun zabala dago horrelako ekimenen inguruan. Gainera, horrelako estrategiak garatzeko premiari dagokionez, Euskadi bat dator beste autonomia-erkidego batzuekin. Erreferentziatzat har daitezke Katalunian martxan jarritako ekimenak², politikan eta erakundeetan oso txertatuta daudelako, izan duten garapen operatiboagatik eta garrantziagatik (autonomia-erkidegoan nahiz udaletan).

Azken urteetan, euskal erakundeek eta gizarte zibilak estrategia global bat eskatu dute aurreiritzien eta estereotipoen aurka borrokatzeko. Are gehiago: argudioak —partekatutak eta sendoak— eskatu dituzte, hain zuzen ere nagusi den imaginarioaren diskurtsoekiko diskurtso alternatiboak sustatzeko gai direnak eta Erkidegoan dagoen gizarte-, kultura- eta erlijio-aniztasunera neurri handiagoan egokitzen diren pertzepzioak pizteko gai direnak.

Zurrumurruen aurkako Eskuliburu honen aurretik ere, Euskadin ahalegin asko egin dira gai honen inguruan. Orain arte egindako mota guztietako ahaleginak (teknikoak, ekonomikoak, koordinaziokoak, sare-lanekoak eta abar) abiarazteko oinarria dira gaur egun. Hortik aurrera, egindakotik sinergiak sortzea, irismen handiagoko estrategiak lantzea eta kudeaketako eta esku hartzeko esparru orokorrakoak diseinatzea espero dugu.

Euskadik jadanik aurreiritziei eta estereotipoei aurre egiteko zenbait erreferentzia baliagarri finkatu ditu. IHKBE³ eta Immigrazioaren aldeko Itun Soziala zurrumurruen aurkako diskurtsoei zentzua eta legitimitatea ematen dieten tresnak dira.

Eusko Jaurlaritzaren Immigrazioko eta Aniztasuna Kudeatzeko Zuzendaritza, esleitu zaizkion eskumenerkin bat etorri, Euskadiko immigrazio-politiken buru izan behar duen erakundea da. Nolanahi ere, Immigrazioko eta Aniztasuna Kudeatzeko Zuzendaritzak beste erakunde batzuekin, gizarte zibilarekin eta arlo horretan aspalditik lanean ari diren erakunde eta eragileekin lankidetzan bete nahi du agindu hori. Hori dela-eta, horiekin guztiekin sarean lan egitea proposatu da, ahaleginak koordinatzeko, ekimenak sendotzeko eta denon artean immigrazioari buruzko zurrumurruen, aurreiritzien eta estereotipoen aurkako borrokaren eraginkortasuna areagotzeko.

Eskuliburu honek erreferentzia-puntu bat izan nahi du administrazioei, erakundeei eta garatzen diren sareei (eskola-eragileak edo tohiko sareak, adibidez) aholkua emateko. Gainera, norbanakoei, erakundeei, administrazioei, profesionalei eta abarri zuzendutako ikastaroetarako prestakuntza-material gisa erabiliko dugu.

² <http://bcnantirumors.cat>

³ Immigrazioaren, Herritarren eta Kultura arteko Biziriketasunaren III Euskal Plana 2011-13 (2011). Vitoria-Gasteiz. Immigrazioko eta Aniztasuna Kudeatzeko Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila.

2. Eskuliburuaren testuingurua

Eskuliburu hau ez da arazo guztien konponbidea. Izaera globala badu ere, ez ditu kulturarteko bizikidetzarekin eta aniztasunaren hudeaketarekin lotutako prozesu sozial eta politiko guztiak biltzen.

Eskuliburu hau bizikidetzaren gaiaren inguruko zabalkundearekin, prestakuntzarekin edo sentsibilizazioarekin zerikusia duten beste ekimen batzuk antolatzeko **oinarria** da. Proposamen multzoak estrategia globalaren zerbitzurako tresna sorta eratuko du eta, are garrantzitsuagoa, tresna sorta hori aplikatzeko ardura duen **eragile-sarearen** zerbitzurako. Teknikariak ez ezik, herritarrak ere inplikatzeari espero dugu.

Eskuliburuak aurreiritzien, zurrumurruen eta estereotipoen aurkako oinarritzko **argudioak** eskaintzen ditu. Imaginario kolektiboak egituratzen dituen diskurtsoen —eta imaginario kolektiboa egituratzen duten diskurtsoen— aurrean erantzutea ahalbidetzeko moduan antolatu da eskuliburu hau. Bestela esanda: kontrako argudioak biltzen ditu.

Eskuliburuak **konpromiso** kolektiboak eta **erronkak** planteatzen dizkio gizarteari. Horregatik saihestu dira orokortzeak, errua eta problematizazioa; hau da, ez da inoiz jotzen imaginario kolektiboak bere argudioak justifikatzeko erabiltzen dituen estrategietara. Era berean, errealitate konplexua alde batera uzten duten eta errealitatea ondo ez ezagutzea errealitatea estereotipoen eta aurreiritzien bitartez ezagutzearen ilusioarekin ordezkatzeko erabiltzen dituen iruspuntuei aurre egitea lortu nahi du eskuliburuak.

Hau ez da *kontrapropagandako* eskuliburu bat; beraz, ez du imaginario bat beste imaginario batekin ordezkatu nahi, ezta «diskurtso gupidagabea diskurtso apartarekin» ordezkatu nahi ere, zenbait egilek iradoki duten moduan. Aitzitik, eskuliburu honek:





- informaziorik eza eta ezjakintasuna dagoen tokian informazioa eskaintzen du,
- zenbait pertzepzio erlatibizatzen eta birmoldatzen dituen kontrapuntu-informazioa eskaintzen du,
- diskurtso sinplista eta erredukzionistekiko desberdinak, alternatiboak eta, are gehiago, kontraesankorrak diren analisi-ikuspegiak eskaintzen eta iradokitzen ditu.

Eskuliburuak mahai gainean jartzen ditu maiz «datu eztabaidaезinetan» oinarritutako argudioen azpiko **jarrera etiko eta ideologikoak**. Horretarako, kopuru eta erreferentziak eskaintzeaz gain, argudio ideologikoak, etikoak eta zentzuzkoak ematen ditu. Aipatutako hori guztia ez dago kontraesanean *kontrapropaganda* eta diskurtso *apartak* saihestearekin.

«Diskurtso gupidagabeen» logikarekiko desberdina den logika bat erabiltzea funtsezkoa da. Hori dela-eta, eskuliburuak diskurtso horiek aurkezteko jarrerak agerian uzten ditu. Hori egiteak honako hau eskatzen du: diskurtso horiei eusten dietenek errealitateko datuak nola hautatzen, jakinarazten eta zentzuz betetzen dituzten azaltzea. **Aldez aurreko jarrera** horiek dira estereotipoak erairkitzen dituztenak, eta ez datuak.

Eskuliburu honek *'Bizikidetzaren aldeko konpromisoa'* izeneko dokumentuan adierazten diren jarrerak hartu ditu abiapuntutzat; Euskadiko Immigrazioaren aldeko Itun Sozial bat⁴ lortzeko landutako **lehen dokumentua** izan zen hori. Dokumentu hartan esaterako, honako hau adierazten zen:

Immigrazioaren fenomenoа ez dugu ikuspegi utilitarista batetik lantzen, humanitatearen eta justiziaren ikuspegitik baizik. Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala eta bertan bilduriko eskubide guztiak pertsona guzti-guztien ondare direnaren uste osoa ditugu abiapuntu.”

Halaber, abiapuntutzat ditugu berdintasunaren ideala eta diskriminaziorik ezaren printzipioa. Adierazi beharra dago printzipio hori Konstituzioren 14. artikuluan jasota dagoela, eta Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidea osatzen duten tresna guztiak zein Europar Batasuneko Antolamendu Juridikoak aitortzen dutela. Horrela, beraz, Europar Batasuneko funtsezko balioetako bat dela esan dezakegu. Eta, hori guztia, etorkinen eta bertakoen eskubideen eta betebeharren aldarrikapenean zehazten da, betiere Konstituzioaren balioen esparruan.

⁴ **Immigrazioaren aldeko Itun Soziala Euskadin** Elkarbizitzaren aldeko konpromisoa (2011).

3. Hartzaileak, erabilerak eta garapenak

Diskurtso gupidagabeek eta aurreiritziek eremu guztietan jarduten dute eta pertsona guztiei eragiten diete eta, beraz, horien aurka egiteko estrategiak ere integrala izan behar du: edozein testuinguru, edozein baliabide, edozein pertsona, talde edo erakunde estrategiaren subjektu aktibo izan daiteke.

Hori dela-eta, testu hau oinarritzko argudioen bilduma gisa aurkezten da, eta tresna irekia, eskuragarria eta mota guztietako pertsona eta eragileek erabil dezaketena izatea bilatzen da. Hau da, alde batetik, bizirikidetzaz sustatzeko eta aniztasuna kudeatzeko zuzeneko eskumenak dituzten administrazio publikoek erabiltzeko modukoa, baina, bestetik, baita beren eguneroko inguruneetan aurreiritzien eta estereotipoen aurkako jarrera aktiboa hartu nahi duten gizarte-erakunde eta herritar partikulek erabiltzeko modukoa ere.

Horiek guztiek testua osorik edo partzialki erabili ahal izango dute beren jardueretarako eta jardun-estrategietarako.

Beraz, estrategia orokorrago hori zabaltzeko, beharrezkoa izango da zabalkundeko, prestakuntzako eta sentsibilizazioko garapenak sustatzea. Eskuliburu hau oinarritzat hartuta, eragile horiei laguntzeko hainbat prozesu, metodologia eta sistema zabalduko dira eragile horien errealitate eta aukeretara egokituko diren jarduerak zehazteko.





Ildo horretan, hau ez da amaitutzat jotzen den eduki bat. Aurrerago adieraziko den moduan, eskuliburuaren berezko ikuspegian etengabeko berrikuspen- eta eguneratze-prozesuak biltzen dira, baita eragile eta erabilera desberdinekiko egokitzeak ere.

4. Edukia

Eskuliburuak zurrumurruen, aurreiritzien edo estereotipoen 12 kasu lantzen ditu, hain zuzen ere, beste autonomia-erkidego batzuetan martxan dauden esperientziak aztertu eta Euskadiko errealitatera egokitu ondoren aukeratutakoak. Hona hemen zerrenda:

1. Ezin ditugu etorkin gehiago onartu: gehiegi dira
2. Etorkinak gizarte-laguntzei esker bizi dira, eta neurriz kanpo baliatzen dituzte
3. Etorkinek lana kentzen digute
4. Immigrazioaren ondorioz, matxismoa eta genero-indarkeria areagotu egiten dira
5. Etorkinek ez dute integratu nahi
6. Etorkinek neurriz kanpo erabiltzen dute euskal osasun-sistema, eta larrialdi-zerbitzuak kolapsatzen dituzte
7. Ikasle etorkinek eskoletako hezkuntza-maila jaitсарatzen dute eta ikastetxeetan ghettoak sortzen dituzte





8. Etorrintzat izaten dira babes ofizialeko etxeak: lehentasuna izaten dute, eta euskaldunek baino aukera gehiago
9. Pilatuta eta baldintza txarretan bizi dira. Aurreko egoera horrek alokairuen merkatua garestitzen du eta etorkinak bizitzen jartzen diren auzoen balioa jaisten du
10. Immigrazioak erlijio-gaiak berriz ere mahai gainean jartzea eragingo du, eta laiktasunerako prozesua geldiaraziko du
11. Espazio publikoa gainokupatzen dute, eta espazio hori ez dute behar bezala erabiltzen
12. Arauak ez dituzte errespetatzen, ez dute gizalegerik

5. Egitura

Corago adierazi den moduan, eskuliburu hau ez dago argudio itxi eta behin betikoez osatua. Bere xedea estrategia globala eta iraunkorra lantzerakoan abiapuntu eta erreferentzia izatea da.

Zurumurruek, aurreiritziak eta estereotipoak denborarekin aldatu egiten dira, eta errealitateko datu berri bakoitzarekin birsortu. Hori dela-eta, komeni da eskuliburuaren lantzeko eta zabaltzeko lana jarraitua eta etengabe eguneratzen dena izatea.

Edizio honetan, zurumurruen eta aurreiritzien lehen hautaketa bat biltzen da. Hautaketa esanguratsua egiteko ahalegina egin dugu eta, batez ere, adibideekin arazoei nola aurre egin adierazteko baliagarria egiteko. Edizio hau abiapuntua denez, gizarte-eragileak, erakundeak eta gizartea izango dira eredu baliotzeko dutenak. Lehen entrega hau hobetzeko, hurrengo eskuliburuak lantzeko eta eskuliburu horiek osatuko dituzten materialak —ikus-entzunezkoak, didaktikoak eta abar— prestatzeko balio izango duten irizpide eta orientazioak baliozkotze-prozesu horretatik aterako ditugu.

Eskuliburuaren lehen entrega hau paperean eta formatu digitalean argitaratuko dugu. Hurrengo entregak aldian-aldian eta bertsio elektronikoan bakarrik argitaratuko dira.





6. Zurrumurru bakoitzari ekiteko modua

Zurrumurru bakoitzari bi etapatan ekingo zaio. Lehen etapa ezaugarriak azaltzean datza. Bigarren etapa, zurrumuruari ekiten ikastean datza.

a | Zurrumuruaren ezaugarriak azaltzea

Eskuliburu hau landu aurretik, hainbat galdera planteatu ditugu honako alderdi hauen inguruan: nola adierazi material grafiko batean zurrumurru, aurreiritzi edo estereotipo baten dimentsioak; nola sortu lotura zurrumurru, aurreiritzi edo estereotipoen eta horrelakoak indartzen dituzten eguneroko egoeren edo horiek aktibatzen dituzten eragileen artean, eta nola islatu pertsonen zurrumurru, aurreiritzi edo estereotipo horiek barneratzeko maila desberdinak.

Gure ideiarako bitarteko gisa informazio-baliabide digital bat aukeratu dugu, internautek albisteei buruzko iritzia eman dezaten. Albistek eta albisteari buruzko iritzien multzoak zurrumuruaren dimentsioen lehen nozio bat izaten lagunduko die irakurleei. Gainera, metodologia horrek eskolako testu-azterketetara eramaten du eta testu bat argitzeko ahaleginaren berezkoa den joko-osagaia eskaintzen du.

Internauten iruzkinak biltzen dituen bitarteko digital baten aukera egiteak zenbait ezaugarri espezifiko eskaintzen ditu:

- Zurrumuruari elkarriketa dramatizatuak, irudiaren baliabideak, testu formalak eta antzeko alternatibek eskaintzen dituzten **dimentsio eta ñabardurako** ezaugarriak baino askoz dimentsio eta ñabardura gehiagoko ezaugarriak ezartzea ahalbidetzen du.





- Zurrumurruen **ikuspegi dinamikoa** errazten du: nola egokitzen diren egoeretara (albistek), nola egokitzen diren eragile gisa diharduten datuekiko bereizleak izateko, nola negoziatzen diren solaskide desberdinekiko elkarriketetan, nola egiten diren kritikarekiko erresistenteak eta abar.
- Zurrumurrua **modu jarraian** identifikatzea ahalbidetzen du. Albiste bakoitzean, honako hauek agertzen dira: zurrumurrua guztiz onartzen duen eta bere azken ondorioetara eramaten duen irakurle bat, zurrumurrua ukatzen eta aurrekoaren estrategiei jarraiki aurkako diskurtsoa eraikitzen duen bigarren irakurle bat, eta beste hirugarren irakurle bat gutxienez, elkarriketaren eta bere ikuspuntua aldatzearen edo zehaztearen aldekoa.

Gainera, formatu horri esker komunikabideek iritzia nola sortzen duten eta, zehazki, imaginario kolektiboak nola eraikitzen eta indartzen dituzten erakustea ahalbidetzen da. Hori dela-eta, komeni da azpimarratzea komunikabideetan agertzen den informazioaren (nola hautatu, landu eta argitaratu...) eta zenbait zurrumurru sortzearen eta indartzearen arteko lotura estua dela. Gauza bera esan daiteke erabiltzailearen eskura dauden beste eremu batzuei buruz ere, hain zuzen, askotan zurrumurruak hedatu eta finkatzen dituztelako distantzia fisikoaren eta anonimotasunaren edo erdianonimotasunaren babes erantsiarekin.

b | Zurrumurruari ekitea

Zurrumurruaren, aurreiritziaren edo estereotipoaren ezaugarriak ezarri ondoren, eskuliburuak hiru idatz-zatitan azaltzen du zurrumurruari nola ekin:

1. **Zehaztasunez hitz eginez.** Atal honetan, pertzepzio desitxuratua zurrumurruak, aurreiritziak edo estereotipoak eragindako gizarte-errealitatearen konplexutasunera egokitzen da. Horretarako, zurrumurruak, aurreiritziak edo estereotipoak gehiegikeriez, zehaztugabeko espazioez eta abarrez gabetzeko kontzeptuzko datu eta erremintak eskaintzen ditu eskuliburuak.
2. **Legeari jarraiki.** Atal honetan, egungo eskubide-esparrua nabarmentzen duten eta zurrumurruari, aurreiritziari edo estereotipoari aplikatu dakizkiokeen legeak, araudiak, jarraibideak edo azterlanak biltzen dira.
3. **Gogoeta eginez...** Atal honetan, eskuliburuak azterketa eta gogoeta alternatiboak iradokitzen ditu, hain zuzen ere zurrumurruari, aurreiritziari edo estereotipoari eusten dieten jarrera eta argudioen kontrapuntua izateko. Orokorrean, ohiko estrategia honako hau izango da: irakurleari zurrumurrua, aurreiritzia edo estereotipoa beste kolektibo edo gizarte-egoera batzuetara estrapolatzeko eskatzea.

Z. 01 - Ezin ditugu etorkin gehiago onartu: gehiegi dira

GAUR EGUN | KIROLAK | MUNDUA | IRITZIA | GIZARTEA | KARTELDEGIA | EKONOMIA

40 etorkin magrebiar atxilotu dituzte Tarifako kostaldera pateraz iristen ari zirenean

48 ordu baino laburrago epean atzemandako bigarren itsasontzia da

12.03.12 - 11:40 - JUAN PÉREZ | TARIFA

Magrebeko berrogel etorkin atxilotu ditu Guardia Zibilak goizaldean pateraz Tarifako kostaldera iristen salatzan ari zirenean. Agintariek Tarifatik itsas milia batera geldiarazi dute itsasontzia.

Etorkinen artean 27 gizon, hamar emakume eta hiru haur zeuden. Gurutze Gorriko Iturrien arabera, emakumeetako bi haurdunaldi-prozesu aurreratuan zeuden. Hala ere, kaiukoko pertsona guztiak osasun-egoera onean aurkitu zituzten, gauean hotz handia egiten zuen arren.

Tangerretik zetorren patera Guardia Zibilak atzeman duen bigarren itsasontzia izan da, 48 ordu baino gutxiagotan. Aurreko astelehenean, 35 etorkin zeramatzan beste kaiuko bat aurkitu zuten Algeciraseko portuaren inguruan. Etorkin horien erdiek hipotermia eta deshidratazioaren seinaleak zituzten.

Bi kasuetan, Gurutze Gorriak osasun-laguntza eta arreta humanitarioa eskaini zien etorkinei, burusiak, arropa lehorra, oinetakoak eta edari beroak banatuz. Etorkin guztiak Polizia Nazionalaren esku geratu dira.

Kopurua beherantz

Krisia izan da migrazio-fluxuak modu eraginkorrean geldiarazi dituen faktorea. Etorkinek herrialde osoko kostaldeetara (eta aireportuetara) iristen jarraitzen dute, baina, joera horrek behera egin du zertxobait 2011n. Azken hiruhilekoan, immigrazioa % 0,5 murriztu da aurreko urteko aldi berarekin alderatuz gero.

Extremaduran eta Euskadin aurkitzen ditugu aipatutako beherakada horrekiko bi salbuespenak; izan ere, leku horietan etorkinen kopurua modu esanguratsuan handitu da (% 5 inguru).

IRUZKINAK

Juan: 40 etorkin gehiago elikatu eta mantendu behar. Aurrera festa!

Diego: Bai... eta Tarifatik eta Algecirastik zuzenean Euskadira, gero eta gehiago datoz! Hemen hobeto bizi daitekeela badakitelako.

Begoña: Baina jende honek ez al daki hemen krisia dagoela? Oraindik ez al dute ulertzen hemen ez dagoela denontzako lekurik?

Juan: Tira! Ez nau harritzen jende hori etortzen jarraitzeak! Berriz ere etorriko dira Gurutze Gorriak edari berekin harrera egiten badie eta GKEek goxo-goxo egoteko lekua bilatzen badiete!

Ana: Hasi zarete betikoak zuen iruzkin arrazista eta xenofoboekin! Pertsona guztiok nahi dugun tokian bizitzeko eta munduan zehar libreki zirkulatzeko eskubidea dugu. Alabaina, badirudi eskubide hori dirudunek bakarrik balia dezaketela. Ez zarete inolaz besteren lekuan jartzen! Ez daukazu elkartzasun apur bat ere!

Javier: Ana, polita, ni ez naiz ez xenofoboa, ez arrazista: errealista naiz. Etorkinek etorri nahi badute, etor daitezela, baina paperekin eta lan-eskaintza batekin. Beti barregari geratzen gara Europan, etortzen diren guztiak jasotzen baititugu, eta nahikoa da!

Aitor: Neska, gauzek muga bat izaten dute, eta eman dezaketena ematen dute! Hemen aspalditik gaindituta gaude, zergatik ez doaz beraien beharra dagoen lekuren batera? A, noskil gainerako herrialdeetan Atzerriartasun Legeak funtzionatzen duelako!

Maria: Ni kezkatzen nauena zera da, Euskadin gero eta etorkin gehiago izatea herrialdeko gainerako lekuetatik alde egiten ari direnean.

Zurrumurruaren erradiografia

- > Zurrumurru horren muina **«tolerantzia-mailaren»** nozioan datza. Kontzeptu horren arabera, harrera-gizartea gai da kuantifikatzeko immigrazioaren kudeaketa gizarte horrentzat noiz ez den bideragarria, erabilerraza eta jasangarria.
- > Gainera, diskurtso horren aldekoek beste **bi pertzepziorekin** indartzen dute diskurtso hori. Alde batetik, etorkin kopurua errealitatean dagoen kopurua baino askoz handiagoa dela diote, eta, bestetik, uste dute besteei mugak jar diezazkieketela lanaren eta eskulanaren premiaren arabera. Hau da, migrazio-prozesuen funtsezko logika muga daitekeela diote.
- > Migrazioak **dei-efektuaren** ondorioa baino gehiago dira; **premia-efektuaren** ondorioa dira. Premiaren dei horren arabera, harrera-eremu bakoitzak behar duen immigrazio-eredua eta immigrazio mota hautatzen du.

Migrazioak nazioarteko testuinguruan: dimentsioak eta zenbait zehaztasun

Immigrazioari buruzko eztabaidak normalean garapen bidean dauden herrialdeen eta herrialde garatuen arteko fluxuen deskribapen bat eginez hasten dira. Beste batzuetan, eztabaida horiek «Hegoalderetik Iparralderako fluxu» deitutakoekin hasten dira. Hori da, adibidez, Nazio Batuen Garapen Programak 2009an argitaratu zuen txostenetik – *Oztopoak gaindituz: giza mugikortasuna eta garapena* – ondoriozta daitekeena.

Munduan zehar, beren lurralde nazionalaren barruan migratzen duten pertsonen kopurua beste herrialde batzuetara emigratzen duten pertsonena baino ia 4 aldiz handiagoa da. Izan ere, NBEren arabera, 740 milioi barne-migratzaile daude eta nazioarteko migratzaileak 214 milioi inguru dira (munduko biztanleen % 3,1). Beraz, munduan gertatzen diren lekualdatze gehienak ez dira garapen bidean dauden herrialdeen eta herrialde garatuen artekoak.

Datu horiek beste modu batean azalduko ditugu. Tarta-diagrama klasikoa marraztuta, ikusiko genuke munduko migrazioaren % 63 garapen bidean dauden herrialdeen artean edo herrialde garatuaren artean gertatzen dela. Horrek esan nahi du garapen bidean dauden herrialdeetatik herrialde garatuertarako migrazio famatuari migrazio osoaren % 37 dagokiola.

Europako biztanleak izan dira aro modernoko migrazio garrantzitsuenaren protagonistak, betiere Txinako biztanleen barne-mugimenduak salbuetsita. Amerikako aurkikuntzatik XX. mendearen lehen herenera bitarte, 50 milioi europarrek baino gehiagok migratu zuen planetaren beste eremuetara. Beraz, azkenaldiko fenomeno da Europak jendea jasotzea, eta are eta fenomeno berriagoa da Espainiak ere jendea jasotzea.

Gogora dezagun Joaquín Arangoren⁵, Madrilgo Unibertsitate Konplutenseko Soziologiako Katedradunaren, **iritzia**:

[...] askotan bestelakoa pentsatzen bada ere, nazioarteko migrazioei ematen zaien izugarritzko garrantziaren arrazoa ez da fluxuen handitasunean bilatu behar; izan ere, harritu behar gintuzkeena zera da, kopuru hori zein txikia den ia 7.000 milioi pertsonako mundu batean, hain zuzen ere zapalketaren, segurtasun-gabeziaren eta abarren eraginez nazioarteko errenta- eta ongizate-mailan hazten ari diren gehiegizko desberdintasunen munduan.

Garapen-maila txikiko munduko 40 pertsonatik soilik 1 bizi da bere herrialdea ez den beste herrialde batean eta, beraz, «nazioarteko etorkin» gisa har daiteke. Proporzio hori oso txikia da aipatutako herrialde horietan emigratzeko baldintza objektiboak biltzen dituen biztanleriaren ehunekoarekin alderatzen badugu. Hortaz, arrazoizkoa dirudi pentsatzea herrialdez aldatzeko ez dela nahikoa desberdintasun ekonomikoak, sozialak edo beste edozein motatakoak gertatzea, baizik eta emigratu nahi duten pertsonak emigratzeko arrazoiak eta borondatea izan behar dutela. Eta, jakina, emigratzeko gaitasuna ere izan behar dute.

⁵ Arango, J. (2007), «Las migraciones internacionales en un mundo globalizado: tendencias y políticas»; **Inmigrantes, El continente móvil**. Vanguardia Dossier, 22. zk. (2007ko urtarrila-martxoa). Bartzelona: Vanguardia Ediciones, 6.-15. or.

Arango, J. (2007), «Derechos sociales, ciudadanía e integración»; hainbat egile: Inmigración y derechos de ciudadanía. Tercer Seminario Inmigración y Europa, Fundación CIDOB. Bartzelona: Edicions CIDOB. 119.-125. or.

Azken urteetan Espainiara iritsi den etorkinen kopurua ez da hainbeste handitu eta egonkortu egin da. Joera horrek honako hau berresten du: enplegua lortzeko eta enpleguari eusteko aukera dela migrazio-fluxuak erregulatzen dituen mekanismo garrantzitsuena.

Emigratzen duenarentzat, migrazio-proiektua batez ere enplegu bat lortzean datza; enpleguaren bitartez bizitza duin bat garatzea ahalbidetzen duten bitartekoak lortzeko itxaropena izaten du. Beraz, oro har, krisiak intentsitate handiagoarekin eragiten die etorkinei, etorkinek bertakoek baino errazago galtzen duelako bere lanpostua. Ondorioa: lan gutxi dagoenean, kanpotik pertsona gutxiago iristen dira.

1998-2008 aldian, atzerritarren ehunekoa % 1,6tik % 11,4ra igaro zen Espainian; alabaina, 2009-2011 aldiari dagokion ehunekoa % 12,1ean egonkortu da.

Oso litekeena da Espainiatik Europar Batasuneko beste herrialde batzuetarako itzulera boluntarioak eta «berremigrazioak» areagotzea. Estatistikako Institutu Nazionalak (EIN) oraindik ez ditu bildu 2011ko datuak, baina azken bost urteetako datuak argitaratu dituzte eta, horietatik abiatuz, joera azter daiteke. Datu ofizialen arabera, 2006-2008 aldian 551.235 pertsona joan ziren Espainiatik, eta 2009-2010 aldian, berriz, 624.945 pertsona.

Datu gehiago: migrazio-saldoa. Euskadik 2007an lortu zuen etorkinen saldo positibo handiena (721.560 pertsona); 2010ean, ordea, parametro estatistiko hori bat-batean erori zen (94.658 pertsona).

Euskadiko kasu berezia

Bertako biztanleen pertzepzioa da hemen dagoen etorkin kopurua benetan dagoena baino askoz handiagoa dela; errealitatean dagoena baino ia hiru aldiz handiagoa. EINen arabera, 2011ko urtarrilaren leian Euskadin bizi ziren atzerritarrak biztanleria osoaren % 6,6 ziren. Aldi berean, 2011ko Ikluspegi Barometroak azaldu zuen bertako biztanleriaren ustez atzerritarrak biztanleria osoaren % 17,3 zirela.

Azken 6 urteetan, beren herrialdera itzultzen diren edo beste herrialde batera migratzen duten etorkinen kopurua modu iraunkorrean hazi da. 2006-2008 aldian 18.501 atzerritarrek emigratu zuten Euskaditik, eta 2009-2010 aldian, berriz, 22.328 atzerritar joan ziren.

Etorकिनен migrazio-saldoa jaitsi egin da. 2007an izan zen atzerritarren saldo positibo handiena (20.042 pertsona), baina 2010ean saldo hori jaitsi egin zen (8.572 pertsona).

Etorकिनен mugimenduek beste gizarte-prozesu batzuen erritmoari jarraitzen diote, hau da, ez dira kontrolik gabeko mugimenduak. Datuek hala diote. Azken hamar urtean, urteko immigrazio-tasa % 10etik % 20ra handitu da; alabaina, 2010ean tasa hori % 3,7 besterik ez zen hazi, eta horrek krisi ekonomikoak migrazio-fluxuetan izan duen eragina adierazten du.

Termino absolutuei erreparatuz, 1998-2010 aldian Euskadiko biztanleriak 80.000 pertsonako hazkundera izan zuen. Hazkunde hori iritsitako etorkinei egotz dakieke ia guztiz; etorkin horiek iritsi ez balira, Euskadik ia 45.000 pertsonako saldo negatiboa izango zuen.

2010ean, atzerriko etorkinen biztanleriaren ia % 77k (guztira ziren 139.229 pertsonatik 106.658), egoitza-baimena zeukan; beraz, immigrazioa irregulartasunarekin lotzen duen pertzepzioa faltsua da. Gainera, pertsona horien erdiak (53.000) Gizarte Segurantzari afiliatuta zeuden. Datu horiek honako hau berresten dute: enpleguak migrazio-proiektuan funtsezko zeregina betetzen duela eta dagozkion administrazio-baimenak lortzen direnean, enplegu arrunta nagusitzen dela. Ildo horretan, garrantzitsua da atzerritartasunaren araudia gogoratzea; izan ere, araudi horretan ezartzen da etorkinek beren lan- eta egoitza-baimenak berriro nahi badituzte, gutxienez baimen horien indarraldiaren erdiari dagokion epea kotizatu behar diotela Gizarte Segurantzari.

Datu estatistikoei erreparatuz ikus daiteke egungo migrazio-prozesuak Euskadin 1950-1960 aldian edo beste une historiko batzuetan izandakoak baino intentsitate txikiagokoak direla.

Espainiako lurraldean sartzeko bide nagusiak aireportuak eta lurreko garraioa izaten dira.

Latinoamerikar eta asiar jatorriko pertsonen kasuan, azterlan ugari erakutsi dute sartzeko bideak aireportuak izaten direla. Europar Batasunetik datozenak errepidez iristen dira, turista gisa edo pertsonen zirkulazio askearen eskubidearen babesean; beraz, horien sarbidea etorrera erregulartzat har daiteke.

Schengen eremuan biltzen diren turistek indarrean dagoen araudia bete behar dute: joan-etorriko txartela, bizitoki egiaztagarria, egonaldirako baliabide ekonomikoak (64,14 €/egun) eta abar edukitzea. Beraz, ez du nahi duenak emigratzen, ahal duenak baizik.

Etorकिनak pateretan etortzeak ez du azaltzen azken hamarkadan etorkinek izandako gorakada. Hona hemen datu bat: 2006an, 30.000 pertsona iritsi ziren Kanarietara, baina Espainiara, oro har, 636.000 etorkin iritsi ziren. Beste ohar bat: Kanarietako kostaldera 30.000 pertsona iritsi ziren urte horretan; alabaina, pentsatu behar da zenbat pertsonak ezin izan zuen iritsi, hau da, zenbat pertsona hil ziren bidean, Gobernuek ezarritako kontrol-mekanismoak gainditzeko aukera bakarrean, hain zuzen ere.

Atzerritasunaren eta migrazio-fluxuen kontrolaren arloko antolamendu juridikoak Espainiako lurraldean bizitzeko baldintzak eta mugak ezartzen ditu.

Espainian sartzeko, indarrean dagoen pasaportea edo bidaia-agiria aurkeztu behar da. Gainera, kasu batzuetan, dagokion bisatua aurkeztu behar da. Dokumentu hori bidaia egin aurretik eskatzen da jatorrizko herrialdeko edo bizi den herrialdeko misio diplomatikoan edo bulego kontsularrean. Bidaiaren arrazoiaren (ikasketak, lana, bizilekua eta abar) arabera, kontsulatuak ezartzen ditu eskatu beharreko baldintzak eta dokumentazioa.

Besteren kontura lan egiteko behar den egoitza-bisatua lortzeko enplegataileak hasi behar du prozedura espainiar Administrazioan. Horretarako, beharrezkoa da nazioko enplegu-egoerak atzerriko langileak kontratatzea ahalbidetzea.

Bere familia berriz elkartu nahi duen atzerritarrek bisatua izapidetu aurretik, dagokion Atzerritarren Bulegoan hasi behar du izapidetze-prozesua.

Bulego horretan egiaztatu behar du, besteak beste, etxebizitza egokia eta bere familia artatzeko nahiko baliabide ekonomiko badituela. Gainera, legeak argi mugatzen du zein senitarteko berreikartu daitezkeen eta zein ez. Lan- edo egoitza-baimen bat lortzeko gainerako arrazoiak salbuespenezko zirkunstantzietan aplikatzen zaizkie. Adibidez, arrazoi humanitarioengatik, nazioarteko babeseko edo agintariekiko lankidetzako arrazoiengatik eta familia- edo gizarte-sustraitzeko arrazoiengatik. Azken kasu horretan, legeak lan-kontratu bat eta Espainian 3 urte egon izana eskatzen ditu.



GOGOETA EGINEZ...

Euskadin gertatutako etorkinen hazkundearen arrazoia nagusiki honako bi aldagai hauetan datza: zenbait lan-eremu estaltzeko premia eta familiak berriz elkartzea. Dirudienez, etorkinen zati txiki bat beste Autonomia Erkidegoetatik etorritako etorkinei dagokie.

2011n, Espainiako 230.559 atzerritarrek zuten familia berriz elkartzeari lotutako egoitza-baimena, hau da, egoitza-baimena zuten etorkin guztien % 8,6. Euskadin, egoera horretako pertsona kopurua 6.471 zen, hau da, egoitza-baimena zuten etorkin guztien % 8,7.

Urtetik urtera, Euskadiko barneko migrazio-saldo positiboa, gainerako Autonomia Erkidegokoekin erkatuik, hazten ari da. 2006an, saldoa 1.182 etorkinekoa izan zen, eta 2010ean, berriz, parametro hori 4.332 etorkinekoa izatera iritsi zen.

Eskubideak errespetatu egin behar dira. Hori dela-eta, Gobernuak familia-bizitzarako eskubidea ziurtatu behar dute, baita Europako herritarrei onartzen zaien pertsonen zirkulazio askerako eskubidea ere. Horretaz gain, indarreko lege-antolamenduan aurreikusitako egoitza- eta lan-baimenek biltzen dituzten eskubideak errespetatzen direla ziurtatu behar dute Gobernuak. Eskubide multzo horretara bildu izan dira historikoki euskal herritarrak ondoz-ondoko migrazio-prozesuetan.

Mugigarritasunerako eta bizi-baldintzak hobetzeko eskubideak eskubide eztabidaezina eta unibertsala izan beharko luke. Lehen mailako eta bigarren mailako pertsonak daudela uste dutenek soilik urra dezakete printzipio hori. Beste kontu bat da ea zer nagusitzen den: «eskulana» merkantzia gisa ulertutako kontzeptuan (soilik behar duguna, behar dugun guztia baina soilik behar dugun denboraldirako...) oinarritutako ikuspegi utilitarista, ala, aldiz, bestelako ikuspegi bat, hau da, aipatutako eskubide eta betebeharrak ziurtatzera bideratutakoa eta arreta-egituren egokitze-prozesuak eta integrazio- eta testuinguru berriarekiko pertsonen egokitzapeneko eritmo naturalak ahalbidetzera bideratutakoa.

Baldintza materialak, instituzionalak, profesionalak eta herritarrei dagozkienak biztanleriaren gorakadari lotuta daude. Gorakada orokor horren kasu berezi bat besterik ez da etorkinen gorakada. Beraz, fluxuak erregulatzeari buruz hitz egiten denean, fluxu horiek edozein izanik ere, aldi berean integrazio- eta egokitze-esparru osagarriak ere behar direla azpimarratu beharko litzateke. Gainera, erregulazio hori egin gabe herrialdeek eta gizarteek biztanleria-gehikuntzei (duintasunezko baldintzetan, dagokion eskubideekin eta migrazio-proiektuetan arrakasta izateko gutxieneko bermeekin) aurre egiteko gaitasun mugagabea dutela uste izatea pentsatzeko era inozoa izango litzateke.

Krisi ekonomikoa berez elementu erregulatzailerik garrantzitsua da. Edozein ikuspegitik begiratuta, krisia egungo lan-merkatuak onar dezakeen etorkinen kopurua edo ehunekoa mugatzeko aitzakia gisa jartzea onartu ezin den argudioa da. Orain dela 10 urte inork ez zuen aurreikusten Espainian 5.700.000 atzeritar finkatuko zirenik. 1993an inork ez zuen aurreikusten 2008rako biztanleria aktiboa bikoiztuko zenik. Baina bestalde, 80-90 aldian inork ez zuen aurreikusi bertako 6-8 milioi emakume lan-merkatura sartuko zirenik ere.

Are gehiago, norbait hori iragartzera ausartu bazen, errealitatek kanpora bizi zela leporatuko zitzaion, lan-merkatuak hainbesterako gaitasunik ez zueneko argudioa erabiliz. Alabaina, ia 2007. urtera arte horrelakoa izan da gizarte-dinamika. Jarrera katastrofistek askotan huts egin dute. Gauza ez da kupoak ezartzea, baizik eta gure artean finkatzen diren pertsonei legezko eta duintasunezko baldintzak eskaintzea.

Etengabe egokitutako fluxuen ikuspegitik, (Javier de Lucas-en terminoetan, «ikuspegi hidraulikoa»), ezinezkoa izango zen, esaterako, emakumea lan-munduan sartzea. Izan ere, gertaera horren mailarik handiena azken bi hamarkadetan izan zen, jadanik langabezia % 20 ingurukoa zenean.

Diskurtso alarmistei eusten zietenentzat eta eusten dietenentzat («Ez da denontzat lanik izango: emakumeek lehen gizonek betetzen zituzten lanpostuak betetzen dituzte...» eta antzekoak), argi utzi behar da disfuntziorik eta gatazkarik gabe ez dela gizarte-aurrerapenik lortzen. Gaur egun, inork ez luke planteatuko emakumeei enplegua lortzeko mugak jartzea...edo behintzat, inor ez litzateke horrelakorik argi eta garbi adieraztera ausartuko.

25 urtetik beherakoen langabezia-tasa % 40 inguru da. Nor egongo litzateke langabetuen lan-merkaturako sarbidea murriztearen alde, horrela 30 urtetik gorako enplegua babesteko? Are gehiago: zergatik ez dugu jaiotze-tasari buruz hitz egiterakoan jarraitzen dugun logika bera jarraitzen, hau da, prozesu hori beharrezkoa dela belaunaldi-ordezkatzea eta ongizate-sistemei eustea bermatzeko?

GOGORATU BEHARREKO FUNTSEZKO ALDERDIAK

Esperientzia objektibo eta egiaztagarriaren ikuspuntutik, zaila da edo ia ezinezkoa, **tolerantzia-mailaz** hitz egitea, eta are zailagoa, mugatzea. Immigrazioak, aldi berean eta automatikoki, bere

gehikuntzaren aurkako erreakzioak sorrarazten hasi zeneko inflexio-puntu argirik ez dago, nahiz eta herri-jakintzak bestelakorik esan.

Horren ondorioz, **tolerantzia ez da jarrerekin eta aurreiritziekin datuekin bezain koherentea**. Zenbait pertsonak ez dute etorkin askorik behar inguruan, edozein etorkin kopuru zaie gogaikarri; beste kontua da pertsona horiek jarrera hori disimulatzeko beren pertzepzioen eta jarrera pertsonalen gunea balizko disfuntzio kolektibo edo sozial baterantz desbideratzea.

Immigrazioaren Euskal Behatokiaren urteko inkestan adierazten da, bertako biztanleriaren ustez, Euskadin bizi diren etorkinen ehunekoa etorkinen benetako ehunekoa baino 10-12 puntu handiagoa dela. Beraz, immigrazio-ehuneko desberdinekin ez bada jarrera proportzionalki aldatu, **ez dago egoera jasanezina bihurtzen duen atalase jakinik**.

Era berean, datuek egiaztatzen dute nazioko enplegu-egoera edo antzeko egoeretan oinarritutako fluxu-kontrolako prozedurak ez direla eraginkorrak. Merkatuaren premiek elementu erregulatzailer gisa jarduten dute, baina etorkinak ez dira jatorrian kontratatuta iristen; hitzartutako enpleguaren formulak sorrarazten duen lan-aurreikuspenarekin iristen dira. Beraz, horrek kontrolik gabeko immigrazioaren, jende-oldearen eta antzekoen ideia baztertu egiten du.

Etorkinen gizarte-sareek ere (nazioz gaindikoko sareak, helmugako sareak eta abar) mugikortasunaren **eragile erregulatzaileraren zeregina** betetzen dute, enplegua bilatzeko aukerak daudenean, horien berri ematen dutelako, baina zailtasunak eta oztopoak sortzen direnean ere, jakinarazten dituztelako.

Aurretik hitzartutako enpleguak eta sareek zeregin nagusia betetzen dutela ulertzen lagunduko digute zenbait datuk. Adibidez:

- Nafarroara iritsi diren 10 nikaraguarretik 9 mugimendu bakar batean etorri dira beren herrialdetik.
- Espainiara iristen diren atzerritarren % 75 zuzenean dator bere herrialdetik, eta horien % 60 mugimendu bakar batean.

Z. 02 - Etorkinak gizarte-laguntzei esker bizi dira, eta neurritz kanpo baliatzen dituzte

The screenshot shows a news article from Donostia titled "Azken seihilekoan gizarte-laguntzek 4,5eko igoera izan dute". The article discusses a 4.5% increase in social benefits for the elderly, with a specific mention of a 165 euro increase for those aged 65 and over. It also notes that the Autonomous Government of the Basque Country (DBE) has allocated 60,000 euros for this purpose. The article includes a comment section with several user reactions.

GAUR EGUN | KIROLAK | MUNDUA | IRITZIA | GIZARTEA | KARTELDEGIA | EKONOMIA

Azken seihilekoan gizarte-laguntzek 4,5eko igoera izan dute

Diru-sarrerak bermatzeko Errenta eta Etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarriaren eskatzaile kopuruak gora egin du krisiak eraginda eta 2012rako zeuden aurreikuspenak gainditu egin dira

12.03.12 - 11:40 - JUAN PÉREZ | DONOSTIA

Azken seihilekoan diru-sarrerak bermatzeko Errenta eta Etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarriaren kontzeptupean egin den gastua 165 euro milloikoa izan da, hau da, aurreko urteko garai berarekin erkatuz gero, %4,5eko igoera.

Gaur egun, Autonomia Erkidegoan, DBE onuradunak 60.000 inguru dira eta 20.000 inguru Etxebizitza prestazio osagarriarenak. Lehenengo laguntza hilean 612 eta 914 euro artekoa izan ahal da (familia unitatearen partaide zenbakiaren arabera) eta bigarrena hilean 250 eurotakoa. Azken hile honetan, laguntzak 32,5 euro milioi izan dira.

IRUZKINAK

Andrés: Laguntzak moztu eta baliabideak hobeto banatu beharko lirateke. Horrela, nik dakidan batzuek ezin izango dute besteren kontura bizi.

Itziar: Ni ez nago ados. Laguntzak handitzea ondo dago, baina iruzurrari aurre egin behar zaio. Zergatik ez dute gehiago kontrolatzen, guztiok diruari etekina ateratzen diotenak zein diren eta nola bizi diren jakiteko?

Pablo: Itziaren iritzi berekoa iriaz. Laguntzak murriztea, batzuek dioten bezala, gure eskubideak lortzeko bidean atzera egitea da. Talmalgaria izango litzateke. Hobeto horrela, gehien behar direnean, mantentzea da.

Amalia: Ni ez nau ezerk hamitzen. Gobernuak azken hamar urteotan Denen- batez ere kanpotik datozenei- laguntzak eman dizkielako gertatu da egoera hau. Aferkerian ibili diren etorkinen emagatik, iluria agortu egin da.

Juan: hemen etorkin guztiak ondo moldatzen dira. Merkatu beltzean lan egin, laguntzak kobratu eta gure diruarekin bizitzen jarraitzeko errodako datuak faltsu. Gainera, beren seme-alaben garmioa, jangela eta eskola ordaintzen diete. Zer gehiago eska liteke?

Ernesto: guztiz bat nator zurekin Juan. Baliabideak lehenago ez agortu izana da harrigarria.

Oihane: gu zerbilat eskatzera joaten bagara, ezetza ematen digute. Euskadin lehenatasuna izango duzu hemendik kanpo jaio bazara eta lan egitea gustatzen ez bazalzu. Aferrei jaten ematen jarraitzen duguz, baina hemengo langileoi ez digu inork laguntzen premian gaudenean

Ana: zer proposatzen duzue, jendea gosez edo kalean uztea soilik kanpotarra izateagatik? Tira!, hemen iruzkin hauek idatzeko nahiko denbora daukan inbidiatsu asko dago!

Juan: inbidiatsu diozu? hara polital ba beharbada bai: jende hori gure herrialdera iristen da, ez du lanik egiten, besteren kontura bizi da eta dena dohainik du...hori lortzeko Mohamed delu behar banaz, esan non siratu behar dudán eta berehala aldatuko dut nire izena

Zurrumurruaren erradiografia

Zurrumurru hau honako argudio honetan oinarritzen da: etorkinek, oro har eta aldeaz aurretik pentsatuta, neurritz kanpo baliatzen dituzte harrera-gizarteak eskainitako baliabideak. Gainera, diskurtso hori hainbat ideiak "apaintzen" dute, diskurtsoa puztuz, deslegitimatuz eta kriminalizatuz; honako hauek dira ideiak:

- > **Egokitze ezin hobearen** logikatik («pertsonek hemen badago lan-kontratu bat duela...») argudiatzen duenak irregulartasunen tasa puztu du honelako arrazoibideekin: «Laguntza behar badu, lanik gabe dago, lanik ez badu kontraturik gabe etorri zelako da, eta kontraturik gabe etorri bazen, egoera irregularrean dago».
- > Logika hori duenak, aurreko gogoetatik honako ondorio hau ateratzen du: «pertsonek ezin badu lanik egin eta egoera irregularrean badago, ez luke hemen egon behar eta ez luke, inondik inora, zerbitzuetarako eta laguntzarako eskubiderik izan behar». Hortaz, ez da lanera etorri, gure ongizate-estatuaren bizkar bizitzera baizik.
- > Gainera, horrela arrazoitzen duenak aurretik suposatzen du etorkinek zenbait zerbitzu eta laguntza ekonomiko lortzeko hainbat pribilegio baliatzen dituztela, bertako herritarrek ez bezala eta horien kaltetan. Era berean, aurretik suposatzen du etorkinentzat «guretzat baino errazagoa dela» jangelarako behak, eskola publikoetako plazak edo laguntza ekonomikoak lortzea.

EBko, Espainiako eta Euskadiko gizarte-babeseko sistemen logika

Herritar guztiekiko **tratu-berdintasuna**⁶ gizarte demokratikoen funtsezko printzipioa da. Gainera, Europako legediak sexua, erlijioa, arraza edo jatorri etnikoa, ezintasuna, adina, sexu-orientazioa edo sinismenak arrazoi dituen diskriminazio oro debekatu du. Adierazitako hori **Europar Batasunaren Oinarriko Eskubideen Gutunean** biltzen da, 10., 19., 20. eta 21. artikuluetan hain zuzen⁷.

Hemen bizi diren eta hemen lan egiten duten atzeritarrek gainerako herritarrek kotizatzen eta ordaintzen dituzten zerga berberak kotizatzen eta ordaintzen dituzte. Beraz, moralki eta legalki

⁶ <http://www.stopdiscriminacion.org/legislacion.htm>

⁷ http://www.europarl.europa.eu/charter/pdf/text_es.pdf

egokia da beren kotizazioari lotutako prestazioak jasotzea: langabeziako prestazioa, ikasteko eta osasun-arretarako laguntzak, administrazio publikoaren zerbitzuak eta abar.

Era berean, **Atzerritarrek Espainian dituzten Eskubide eta Askatasunei eta euren Integrazio Sozialari buruzko Legean**⁸ (urtarrilaren 1eko 4/2000 Legea) honako hau adierazten da: «*Espainian bizi diren atzerritarrek zerbitzu eta prestazio sozialetarako (orokorrak eta oinarrizkoak nahiz espezifikoak) eskubidea izango dute espainiar herritarren baldintza berberetan. Atzerritarrek, beren egoera administratiboa edozein izanik ere, oinarrizko zerbitzu eta prestazioetarako eskubidea izango dute*» (14. artikulua 2. eta 3. idatz zatia).

Euskadiko gizarte-babeseko sistemak ere, **Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen**⁹ bitartez, hainbat hartzaile-kolektibotarako zerbitzuak eta prestazioak –eskuratzeke baldintza zorrotzak eskatzen dituztenak – eskaintzen ditu. Hartzaileak honako hauek dira:

- Adineko pertsonak;
- Gaixotasuna, desgaitasuna edo mugikortasun urritua duten pertsonak;
- Familia, haurrak eta gazteak;
- Oinarrizko gizarte-zerbitzuen eta babes-zerbitzu teknikoaren prestazioak;
- Gizarte-bazterketaren eta pobreziaaren aurkako laguntza ekonomikoak, hala nola gizarte-larrialdietarako laguntzak, diru-sarrerak bermatzeko errenta (lehengo Oinarrizko Errenta), gutxieneko bermerako laguntza-prestazioa eta bestelako laguntza osagarriak.

Zerbitzu eta prestazio horiek guztiak pobrezia edo ongizaterik ezeko egoerak arintzera bideratuta daude eta unibertsaltasunaren printzipioari jarraitzen diote. Prestazio horien hartzailea bere benetako bizilekua Euskadin ezarri duen edozein pertsona izan daiteke, horiek jasotzeko aukeraren atea irekitzen duen baldintza erroldatuta egotea izanik.

Ez dago atzerritarrei bertako herritarrei baino lehentasun handiagoa ematen dien inongo erregulaziorik. Prestazioak erabiltzeko bide eskusiborik ere ez dago. Gainera, atzerriko

⁸ <http://www.boe.es/boe/dias/1989/05/31/pdfs/A16282-16288.pdf>

⁹ <http://www.euskadi.net/bopv2/datos/2008/12/0807143a.pdf>

nazionalitatea izatea ez da inoiz sarbiderako edo lehentasunerako baldintza izaten, eta ez dago jatorriaren arabera ezarritako kuporik kolektiboentzat.

Diru-sarrereren Bermerako eta Gizarteratzeko Legean honako hau adierazten da:

[...] Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Euskal Sistema arautzea du xede, eta esparru horretan, baita prestazio ekonomikoak jasotzeko eskubidea eta honako baliabide hauek jasotzeko eskubidea ere: bazterkeria-arriskua saihesteko baliabideak, bazterkeria pertsonala nahiz gizarte- eta lan-arloko bazterkeriako egoerak arintzeko baliabideak, eta herritarren gizarte-eskubideak benetan baliatzeko behar adina baliabide pertsonal, sozial edo ekonomikoak ez dituztenen gizarteratzea errazteko baliabideak.

Zerbitzu-sistema eta laguntza mota bakoitzari baldintza espezifikoek multzo bat lotzen zaio, horietarako sarbidea arautzeko aurre egin nahi zaien egoeren arabera: pobrezia, gizarte-bazterkeria, kalte-beratasuna, gizarte-desberdintasunak konpentsatzeko politika eta abar.

Legeak ezarritako arriskuaren edo benetako pobrezia-egoeraren baldintzak eta adierazleak honako hauek dira: familiaren errenta-maila, etxebizitzaren bizigarritasun-baldintzak eta familia-unitate baten gastu arrunten maila estandarizatuekiko distantzia (familiako ride kopuruaren arabera). Nazionalitatea ez da inolaz ere sarbiderako edo lehentasunerako baldintza izaten. Bestalde, jatorriaren arabera kolektiboentzat ezarritako kuporik ere ez da izaten.

Etorकिनak lanera etortzen dira eta gehienak egoera erregularrean daude

Etorकिन atzerritarrengan oinarritutako azterlan soziodemografikoak profil batekin bat datoz: gehienak gazteak dira, eta kolektibo hori osatzen duten hideoen erdia baino gehiago 25-44 urte artean dago.

Pertsona horien migrazio-proiektua batez ere honako honetan oinarritzen da: beren bizi-baldintzak eta beren familienak hobetzarren enplegua lortzeko helburuan. Hori dela-eta, etorकिन horien lehen kezka beren egoera erregularizatzea izaten da («paperak lortzea»), eta ahalik eta lan egonkorrenarekin egoera horri eustea. Lan-kontratua egoitza-baimena berritzeko eta epe ertainean familia berriz elkartzeko baldintzetako bat izaten da.

2010ean, Euskadin bizi ziren atzerritarren ia % 77 (139.229 pertsonatik 106.658) egoera erregularrean zegoen eta egoitza-baimena zeukan. Horien erdia, 53.000 pertsona inguru, Gizarte Segurantzari afiliatuta zegoen.

Etorकिनak oso kalteberak izaten dira krisi ekonomiko batean enplegua galtzetik erator daitezkeen aurkako inguruabarren aurrean. Kasu horretan, erosteko ahalmena murriztea izaten da lehen arazoa, baina ez arazo bakarra; izan ere, etorkinaren lan-jarduerak baldintzatzen du, besteak beste, hemen bizitzen eta lanean jarraitzeko behar diren baimen administratiboak berritu ahal izatea. Gainera, etorkinen kasuan kalteberatasun-egoera larriagoa izaten da, bertako biztanleriaren gizarte- eta familia-sareak baino gizarte- eta familia-sare ahulagoak dituztelako haiek.

Etorकिनak eta gizarte-zerbitzu eta -laguntzak

Etorकिनek kolektibo heterogeneoa osatzen dute, baina, oro har hartuta eta asko sinplifikatuz, zenbait prestazio eta zerbitzu eskuratzeko profil egokia dute. Hori etorkinaren migrazio-esperientziaren zenbait unetan eta baliabide jakin batzuekin gertatzen da; adibidez, orientazioko eta laguntzako gizarte-zerbitzuekin, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentarekin, etxebizitza-prestazio osagarriekin edo gizarte-larrialdietarako laguntzekin. Laguntza mota horiek erantzun gogorra jasotzen dute bertako herritarrengandik.

Profil horrek —gehien bat 25-44 urteko pertsonarenak— *egoki* bihurtzen ditu etorkinak zerbitzu eta prestazio batzuetarako, baina beste batzuetatik *kanpo* uzten ditu. Izan ere, etorkinek bertakoek baino ordezkari gutxiago dute honako eremu hauetan: pentsio-sisteman, mendetasunagatiko laguntzetan edo desgaitasunagatiko prestazioetan.

Etorकिनek gizarte-zerbitzuetan duten parte-hartzea handi samarra da gizarte-laguntzei eta larrialdiko laguntzei dagokienez, baita adingabeentzako egoitza-zerbitzuei dagokienez ere. Izan ere, lanaren eta diru-sarreraren arloan kolokatasun-ezaugarri bereziak dituen biztanleria-segmentua da. Hala ere, biztanleria etorkinaren presentzia handixeagoa duten gizarte-zerbitzuen kostua oso txikia da, Oinarrizko Errentaren kasuan izan ezik. Desgaitasunaren eta zaharren arretarako zerbitzuak dira baliabide gehienak hartzen dituzten gizarte-zerbitzuak. Zerbitzu horietan etorkinen parte-hartzea, etorkinek biztanleria osoan duten proportzioa baino txikiagoa da oro har, immigrazio gehiena lanerako indarra delako. Beraz, biztanleria horren batez besteko adina bertako biztanleriarena baino txikiagoa da, eta inoren laguntza behar duen biztanleriaren ehunekoak ere txikiagoak dira¹⁰.

Orekaren argudioa —hau da, zerbitzu eta prestazio batzuk lortzeko aukera izatea beste batzuk ez erabiltzearen ordezkari konpentsatzea— ahula eta okerra izango litzateke. Zergatik? gizarte-babeseko sistemen logikak ez dituelako hartzaileen araberako zerbitzu-tipologiak ezartzen; zerbitzu horiek, aldiz, pobrezia edo bazterketako egoerak aurreikusi eta arintzeko diseinatuta daude. Hain zuzen

¹⁰ Erkidegotik kanpoko immigrazioaren inpaktu ekonomikoa EAEn, 105-107 or., <http://pdf.bakeaz.efaber.net/entry/content/35/estudio.impacto.economico.pdf>

ere, sistema horiek zeregin hori betetzen dute unibertsalak eta pertsona guztientzat beren bizi-ziklo osoan zehar eskuragarriak izateko borondatearekin, betiere egoera espezifiko bakoitzari lotutako baldintza jakin batzuen arabera.

Argazki finkoaren gisako azterketaz gain, etengabeko azterketa ere egin behar da. *Etorkinek zerbitzu eta prestazioetara duten sarbidea Euskal Autonomia Erkidegoan* izenburuko azterlanaren arabera, «atzerritarren % 7k soilik jasotzen ditu sei urte baino gehiago irauten duten laguntzak eta, bertako biztanleriaren kasuan, aldiz, ehunekoa % 43 da». Datu horrek onuradunek prestazio ekonomikoekiko ezartzen duten lotura motari buruzko aztarnak ematen dizkigu: etorkinen kasuan, aldi baterakoa eta lorbide gisakoa izaten da lotura eta bertako herritarren kasuan, berriz, kronikotasun-ezaugarriak izaten ditu.



GOGOETA EGINEZ...

Beste herrialde batera emigratzen dutenek beren migrazio-proiektua bi aldagairen inguruan egituratzen dute: enplegurako sarbidea eta enplegu horrek emango dien independentzia ekonomikoa eta pertsonala. Oro har, inork ez du horrelako garrantzia duen bizi-erabakia hartzen harrera-gizarteek ematen dituzten laguntzak eta gizarte-prestazioak lortzeko, eta are gutxiago etorkizunari begira «pobrezia-aren gurpilean» utziko luketen laguntza-zirkuituetan jarraitzeko.

Laguntza-zirkuituek ez dute ziurtatzen etxebizitza bat modu egonkorrean eskuratzea, familia berriz elkartzea edo diru-bidalketa; beraz, horien onuradunek ezin dituzte laguntzak lehentasunezko aukera edo aukera iraunkor gisa hartu Euskadin bizitzen jartzerakoan. Zirkuitu horiek laguntzen dute, bai, baina horiek eskaintzen dituzten baliabideak urriegiak dira edozein migrazio-proiekturen helburu nagusia lortzeko: norberaren bizi-baldintzak —eta hala badagokio, familiarenak— hobetzea edo harrera-herrialdean familia bat eratzeko aldeko baldintzak sortzea.

Dena den, arau orokor horrekiko salbuespenak badaude, baina kasu puntualak izaten dira. Premia-egoerak izaten dira, zenbait zerbitzu eta prestazio jasotzea eskatzen dutenak, adibidez enplegua galtzeak sortutako eragina gutxitzeko bide gisa. Nolanahi ere, salbuespen horiek gertatzeak ez du justifikatzen norbaitek horrelakoak dei-efektutzat hartzea. Are gehiago: datuek hala diote. Eusko

Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren arabera¹¹, 2011n beren bizilekua Euskadin finkatu zuten etorkinen % 6-7k soilik lehenetsi zuen laguntza publikoen sistema beste arrazoen aurretik (Euskadin krisiak eragin gutxiago izatea, enplegu-aukera gehiago izatea edo familiako hideoak edo lagunak hemen izatea).

Ez dago gizarte-laguntzen eta immigrazioaren arteko lotura zuzenik. Demagun dei-efektua benetakoa dela; Euskadin Espainiako izaera ekonomikoko gizarte-prestazio guztien % 40 biltzen bada, nola liteke etorkinen ehunekoa % 6,6 soilik izatea¹²? Laguntzek sortutako dei-efektua benetakoa balitz, ehuneko horrek askoz handiagoa izan beharko luke.

Datuek imaginario sozialarekiko guztiz desberdina den errealitatea erakusten dute: etorkinak ez dira gizarte-laguntzen bizkar bizi.

AEIaren arabera¹³,

- Etorkinen % 9,3 Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta baten titularra da eta Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta bakoitza 2,75 pertsonarentzat da onuragarria. Beraz, termino globaletan, prestakuntza ekonomiko horrek atzeritarren % 25ean du eragina.
- Etorkinen % 16,3k Etxebizitza Gastuetarako Prestazio Osagarria (EGPO) eskuratzen du
- etorkinen % 5,1ek soilik jasotzen ditu etxebizitza ziurtatzera bideratutako Gizarte Larrialdietarako Laguntzak (GLL), eta etorkinen % 2k soilik jasotzen ditu gainerako GLLak.

Aitzitik, etorkinek bertako biztanleriaren hein berean laguntzen dute gizarte-babeseko sistemen euskarri diren diru-bilketei eusten, Gizarte Segurantzako kotizazioen eta zuzeneko eta zeharkako zergen bidez.

Etorkin askok lan egin eta kotizatzen dute, eta kontsumitzaile eta erabiltzaile diren aldetik, denek jasaten dute BEZa; hau da, gainerako herritarrek dituzten zerga berberen eraginpean daude. Gainera, gizarte-babeseko sistemak zerga guztiekin bildutakoarekin finantzatzen dira, eta ez soilik nomina

¹¹ Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak 2500 inkestatan baino gehiagotan oinarrituta eginitako 2011ko Atzerriko Etorkinen gaineko Inkestatik bildutako datuak.

¹² Euskadiko Immigrazioaren 2010eko Urtekaria, Itxuspegiak:
http://www.itxuspegi-inmigracion.net/documentos/anuarios/anuario_2010_cas_ok.pdf

¹³ 2010eko AEI (2011). EAEn bizi diren atzerriko etorkinen gaineko inkesta. Emaitzei buruzko txosten orokorra, Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila, 2011.

daukaten pertsonen jasanarazitako PFEZrekin. Hori dela-eta, ezin dira honelako diskurtsoak onartu: "Nire nominak karga-tasa baduenez, nik laguntzetarako eskubidea dut; beraz, lan egiten ez duenak ez ditu eskubide horiek sorrarazten".

Ideas Fundazioaren azterlan baten arabera ¹⁴, etorkinen zerga-ekarpena —5.000 milioi euro urtean— Espainiako sektore publikoaren superabitaren % 50 izan zen hazkunde ekonomikoaren garaian. 2010eko amaieran, krisia gorabehera, zerga-ekarpena oraindik ere 3.000 milioi euro baino handiagoa zen.

Bakeaz Fundazioaren arabera, Euskadiko 2006ko etorkinen zerga-ekarpenak bertako biztanleriaren ekarpena % 23,5ean gainditu zuen. Kalkulu hori lan-errenten zerga-bilketa kontuan hartuta egin zen. AElaren arabera, etorkinen diru-sarreraren % 78 beren lanetik dator.

Aurreko datuek alderdi hori beste ikuspuntu batetik aztertzea ahalbidetzen dute; izan ere, beren zergekin ia onurarik lortzen ez duten gizarte-babeseko sistemei eusten diete etorkinek. EGPOaren kasuan, % 16,3, GLL orokorren kasuan, % 2 eta etxebizitza ziurtatzeko GLLen kasuan, % 5,1. Zerrenda horri honako datu hau gehi dakiok: diru-sarrerak bermatzeko errentak jasotzen dituzten herenak prestazio hori gutxieneko pentsioen osagarri gisa jasotzen du. Hori guztia esan ondoren, etorkinek euskal gizarteko beste kolektibo behartsuen ongizateari eusten laguntzeko moduari buruzko gogoeta ez al litzateke egin behar?

Galdera gehiago: Immigrazioari ez balego, nolako dimentsioa izan beharko luke Gizarte Zerbitzuen Sistemak? Zenbateko kostua izango luke? Nola garatuko ote ziren uztartze-politikak? Gizartean gutxitan planteatzen da eztabaida hori modu irekian. Adibide xume bat izan daiteke honako honi buruz gogoeta egitea: zenbatekoa izango litzatekeen gizarte-gastuaren bolumena etorkinek —eta bereziki, emakume etorkinek— etxeko zerbitzuaren eta kolokatasun-egoeran dauden pertsonen zaintzaren lan-nitxoa bete izan ez balute. Etorkinek gizarte-zerbitzuetan egindako ekarpen handiena aurreztutako gastu soziala da.

¹⁴ **La contribución de la inmigración a la economía española.** Evidencias y perspectivas de futuro, Fundación ideas, Madrid, 2011.

GOGORATU BEHARREKO FUNTSEZKO ALDERDIAK

Ikuspegiren barometroaren arabera, 10 euskaldunetik 8k baino gehiagok etorkinak finkatzea onartzen du, betiere **egoera erregularrean badaude**. Proportzio hori da hain zuzen ere, beren egoera egoitza-baimenen bitartez erregularizatuta daukaten etorkinen proportzioa. Gainera, horien ia erdiek lan egiten dute eta Gizarte Segurantzari kotizatu; ondorioz, gainerako herritarren modura, beren errentak Foru Ogasunetan aitortzera behartuta daude.

Hau da, gizarte-zerbitzu eta -prestazioak eskuratzea eta erabiltzea ez du egoera administratiboak edo etorkin-izaerak baldintzatzen, lan-merkatuari dagokionez etorkinek duten kalteberatasunetik eratorritako **alderdi sozioekonomikoek**, baizik.

Atzerritarrek gizarte-zerbitzu eta -prestazioen baliabidera jotzea haien **gizarte- eta laguntza-sarea** txikiagoa izateari ere zor zaio. BAren datuen arabera, Espainiako milioi eta erdi familia inguruk ditu bere kide guztiak langabezian. Muturreko egoerak urriak dira oraindik (batez ere, haleratze eremuan ikusten ditugu) eta horren arrazoia da jende askok izaten duela edo bilatzen duela muturreko egoeretara iristen uzten ez dion gizarte- edo familia-sarea.

Pertsona horiek eskuratu dituzten eskubideen onurak jasotzea indarrean dagoen legediarekin bat dator eta, beraz, **bidezkoa da gizarte demokratiko batean**. Bestalde, Euskadin haurren babeserako eta haurren bazterketako eta pobrezia-egoerak arintzera bideratutako prestazio ekonomikoak daude hainbat baldintza betetzeari lotuta, egoera administratiboa edozein izanik ere.

Pobrezia-egoera edo ongizaterik ezako egoera guztiak arintzera bideratutako neurri guztietan ez dago atzerritarrei bertakoei baino lehentasun handiagoa ematen dien inongo erregulaziorik. Prestazioak erabiltzeko bide eskusiborik ere ez dago. **Neurri guztiek unibertsaltasun-printzipioari jarraitzen diote, hartzaila gisa Euskadin bizi den edozein pertsona hartuz**. Sistema horiek lortzeko atea errolatzeak irekitzen du.

Atzerriko nazionalitatea izatea ez da inoiz sarbiderako edo lehentasunerako baldintza izaten. Bestalde, jatorriaren arabera kolektiboentzat ezarritako kupoak ere ez da izaten.

Biztanleria etorkinak balio erantsiaren ekarpena egiten du bere lanaren eta kontsumitzen dituen ondasunen bitartez. Nolanahi ere, etorkinek gizarte-zerbitzuen sistemari egindako ekarpen handiena harrera-gizarteari aurreztutako gizarte-gastuaren bolumenean datza. Hori ikusteko honako hau balioetsi behar da: zenbateko **gizarte-gastuaren bolumenari** aurre egin behar

litzaiokeen biztanleria etorkinak —eta bereziki, emakume etorkinak— etxeko zerbitzuaren eta pertsonen (askotan kolokatasun-egoeran daudenak) zaintzaren lan-nitxoaren bete izan ez balu.

Etorkinen gizarte-babeseko sistemetarako sarbidea zalantzan jarri beharrean edo etorkinei pribilegioak ematen dizkietelakoan sistema horiek deslegitimatuta beharrean, gizarteak indartu, balioetsi eta legitimatu egin behar du lituzke bai etorkinak, bai sistemak berak. Zergatik? batzuek nahiz besteek, eta bien arteko dinamikak **gizarte-kohesioan** eta premia sozial eta ekonomikoak betetzen **lagundu dutelako**. Ez da ahaztu behar etorkinek zuzenean egiten duten ekarpena eta zenbateko inbertsioa murrizten laguntzen duten. Gainera, onartu behar da beharrezkoa dela gizarte-estaldurako sistema indartsu bat eta gero eta integratuagoak dauden etorkinak izaten jarraitzea.

Nolanahi ere, zenbait gizarte-prestazioek ez dute balio etorkinen bizitzako alderdi garrantzitsu batzuetarako, esaterako: lehen egoitza- eta lan-baimena lortzeko, familia berriz elkartzeko, jatorriko herrialdeko senitartekoei dirua bidaltzeko eta abarretarako. Horietarako, lan bat eta lan-jardueratik eratorritako diru-sarrera jakin batzuk edukitzea beharrezkoa da.

Z. 03 - Etorkinek lana kentzen digute

GAUR EGUN | KIROLAK | MUNDUA | IRITZIA | GIZARTEA | KARTELDEGIA | EKONOMIA

Langabezia da euskal herritarren kezka nagusia

Biztanleriaren % 78rentzat, enpleguaren suntsitzea eta lan-prekarizazioa dira Euskadiko arazo nagusiak

12.01.10 - 13:20 - JUAN PÉREZ | GASTEIZ

Langabeziarekiko kezka soziala aurrekaririk gabeko kopuruetara iritsi da. Hamar euskaldunetik zortzik adierazten dute langabezia dela beren kezka nagusia, eta horretatik gertu, krisia gorabehera, oraindik dirauten lanpostuen prekarizazioa. Horrela dio gaur Gasteizen aurkeztu den Herritarren Iritzien Institutuaren azken txostenak.

Dokumentu hori 7.400 inkestatan oinarrituta dago, eta gizartearen ondoeza orokorra eta gora doan ziurgabetasuna jasotzen ditu. Ziurgabetasunaren gorakada hori ulertzeko, nahikoa da kopuruak ikustea. Aurreko urteko azken hiruhilekoan, langabezia-tasa % 21,9 izatera iritsi zen, langabetuen guztizko kopurua ia bost milioi izanik.

Euskadiko langabeziaren kopuruak ez dira Estatukoak bezain dramatikoak, baina hala ere, kezkarriki dira Herritarren Iritzien Institutuaren txostenak adierazten duen moduan. Hogei hilabetetan jadanik langabezia-tasa bikoiztu egin da eta bi urte eskasetan % 5,4 izatetik % 11,8 izatera igaro da.

Sektoreei dagokienez, honako hauetan izan da eragin handiena: eraikuntzan, zerbitzuetan, nekazaritzan eta industrian. Eragin txikiena, aldiz, ostalaritzan eta turismoan sumatu da.

IRUZKINAK

Juan: bost milioi langabetu, bost milioi etorkin. Kontu horiek egitea erraza da ezta?, joan daitezela etori ziren bidetik eta arazoa bi egunetan konponduko dugu.

Ana: Juan, benetan, onar ezazu arazo bat daukazula?. Orain krisiaren erua ere etorkinek dute, ezta? Tira, gizonak Kanpotar askok lan egiten dute, ekarpena egiten dute eta gure gurasoei pentsioa ordaintzen diete.

Juan: baina guri kentzen digute lana, neska! Joan daitezela beren etxera eta nik egingo dut lana eta ordainduko diet pentsioa nire eta zure gurasoei, partekatzen ez dakidala esan ez dezazun.

Itzi: nik ez dut kopuru horiek sinisten. Jende asko dago ezkutuko ekonomian. Zerbat etorkin daude paperik gabe eta beitzan kobratzen? Eta jakin ezazu ez naizela "top manta" delakoari buruz ari, e? Erreparatu enpresei edo edozein biologiaren etxean nongo pertsonak aritzen diren etxeko zerbitzuan eta zer baldintzetan egiten duten lan.

Marta: etxeko zerbitzuaren eta adinekoren zaintzaren lanpostuak etorkinek betetzen dituzte. Nire laguri psikologo bat lanik gabe geratu zen eta horrelako lanen bila hasi zen diru pixka bat ateratzeko. Baina ikusi du ezinezkoa dela. Arlo horiek hegoamerikarrek guztiz estaltzen dituzte.

Gorka: bai, eta okerrera da hemengo jendeak nahiago dituela etorkin horiek. Nik ezin dut ulertu... ikasketak dituen neska bat aukeratu beharrean, kanpotar bat aukeratzeko, eta auskalo horiek zer irakatsiko dieten zure seme-alabei.

Josemi: jakina! Gubiagi kobratzen dute, ez dituzte eskubideak aldarrikatzen, astean 7 egunetan lan egiten dute binkik esan gabe... eta hori denean, e? Aukeratu edozein lantxide, eskatu aurrekontuak, eta beti aurkituko duzue lan hori bertako batek egingo lukeen prezioaren erdian egingo duen etorkina.

Raúl: gizona! Etorkinak lanera eta beren familiak mantentzera etortzen dira. Logikoa da eskaintzen dietena onartzea. Ez da beren erua horretara etortzen direlako. Gertatzen den arazoa da jarrera horrekin lan-merkatuaren egoera aldatzen ari direla: bertakoentzat lanpostu gubiagi geratzen dira eta, gainera, lehen baino baldintza txarragoetan. Enpresek eskaintzen duena zuk ez baduzu onartzen, kanpotar batek onartuko du. Denok gaitzen dugu.

Zurrumurruaren erradiografia

Zurrumurru hau lau ustetan oinarritzen da:

- > Etorkinek eta bertakoek lan-eremu eta –nitxo berdinetan **lehiatzen dute;**
- > Etorkin batek betetzen duen lanpostu bakoitza bertako batek eskuratu ezin duen lanpostua da, hau da, langile atzeritarrek hemengo langileak **ordezkaten dituzte;**
- > Ordezkatze hori **lehia desleiala**, insolidarioa eta borondatezkoa izaten da;
- > Krisi ekonomiko baten aurrean, etorkinek bertakoek baino helburu xumeagoak izaten dituzte, eta lan-baldintza txarragoak onartzeko gaitasun handiagoa, eta alderdi horiek **lehiarako abantaila** ematen diete, nahiz eta lan-merkatua estutzen duten.

Etorkinak ez dira krisiaren, langabeziaren edo lanik ezaren eragileak, krisiaren lehen biktimak baizik

Funtsean, egungo krisi ekonomikoa merkatuek eta elite ekonomikoek eragin dute; izan ere, horien etekinak maximizatzeko politikak finantza-espekulazioa sustatu du eta eragile ekonomikoengan mesfidantza orokorra eragin du.

Etorkinek aberastasun garbia sortzen lagundu dute, eta ez krisia eta langabezia. Presidentearen Bulego Ekonomikoaren 2006. urteari dagokion txostenaren arabera (2007. urtean –krisiaren lehen eraginen bezperatzen har daitekeen urtean– egindakoa), immigrazioak «langabezia-tasa jaisten eta barne-aberastasuna handitzen lagundu zuen, gehikuntzaren % 30, 1995-2005 hamarkadan eta gehikuntzaren % 50, aldi horretako azken 5 urteak aztertzer mugatuz gero».

Era berean, zenbait azterketak erakusten dute krisi ekonomikoak bereziki etorkinei eragiten diela: «2009. urtean Estatu espainoleko bost etorkinetik batek lana galdu du, eta etorkinen langabezia % 27,5era iritsi da; aldiz, Estatuko langabezia orokorra % 17 da»¹⁵.

Estatistikako Institutu Nazionalaren (EIN) 2011ko laugarren hiruhilekoari buruzko Biztanleria Aktiboaren Inkestaren (BAI) arabera, espainolen langabezia-tasa % 20 da eta atzerritarrena, aldiz, % 34.

Euskadin, AEIaren datuek honako balantze hau adierazten dute:

[...] atzerritar gehienak (biztanleria atzerritar osoaren % 52) lanean ari dira, eta guztira 77.000 pertsona dira egoera horretan daudenak (lanean diharduen biztanleriaren osoaren % 8,2). Biztanleria ez-aktiboa % 24,5 da. Aurreko kopuruen arabera, langabezia-tasa eta jarduera-tasa % 31 eta % 75,5 dira, hurrenez hurren.

Etorkinak ez dira lan-merkatuaren prekarizazioaren eta negoziazio-kolektiborako gaitasunaren ahultzearen eragileak

Enplegu prekariorak eta soldata txikienekoak ez dira etorkinek lehentasun naturala. Eskubideak eta autonomia ekonomikorako nahiak murriztuta ikustea ez da aukera pertsonala izaten.

Beste lan-kolektibo batzuen modura, etorkinek ere lan-merkatuaren zatikatzea eta eskubide edo soldaten arloko desberdintasun-egitura pairatzen dute.

Kolektibo etorkina lan-merkatura maila baxuenetatik sartzera behartuta egoten da, eta ez hainbeste bere onura propiorako, baizik eta enplegatzaileen onurarako. Hori horrela izaten da etorkinek bertako biztanleriak ez dituen zenbait muga izaten dituztelako. Besteak beste:

- Dagozkion lan-baimenak eskuratzeko zailtasunak,
- Lan-baimenen denbora-, sektore- eta lurralde-mugak: denbora mugaturako eta jarduera jakin baterako ematen dira (kontratuaren arabera) eskatzen diren Autonomia Erkidegoan,
- Jatorrian lortutako titulazio akademiko eta profesionalak homologatzeko zailtasunak,
- Bertako lan-merkatua ez ezagutzea.

Bi zirkunstantziak larriagotzen dute kolektibo etorkinaren egoera; bata administrazio-arlokoa da, eta bestea, berriz, izaera zehaztugabeagokoa. Lehenengo zirkunstantzia da indarrean dagoen lege-

¹⁵ Adecco-ren (2009), "Los inmigrantes no desplazan a los españoles de sus puestos de trabajo durante la crisis" izenburuko azterlana.

esparruak norberaren konturako ekintzailletza zailtzen duela, eta bigarrena, berriz, sindikatuekiko afiliazioaren ehuneko txikia dela. Bigarren zirkunstantziaren arrazoiak ezjakintasuna, erreferentziak edo beren jatorriko herrialdean izandako bizipen ez-gogobetegarriak izan daitezke; alabaina, ondorioa da sindikatuetan parte hartze txikiak beren lan-eskubideen defentsa kolektiboa, lanbide-sustapenerako aukerak eta abar zailtzen dituela.

Hain zuzen ere, lan-baldintzak hobetzea aldarrikatzeko bidea guztien eskubideen eta duintasunaren defentsa da, nazio-jatorria edo etnia edozein izanik ere. Lan-baldintzen prekarizazioaren aurkako antidotorik onena hitzarmen kolektiboak eta lan-arloan indarrean dagoen legedia betetzen direla bermatzea da.

Kasu honetan indarrean dagoen lege-esparrua I. zurrumurruari zegokion lege-esparru bera da, hau da, egoitza- eta lan-baimenak berritzeko atzerritarrek gutxienez baimen horien indarraldiaren erdia kotizatu behar dutela Gizarte Segurantzian (6 hilabete, urtebeteko baimenen kasuan, eta 12 hilabete, bi urteko baimenen kasuan).

Zentzuzkoena honako hau pentsatzea da: etorkin batek ezkutuko eta baldintza prekarioko enplegua baino nahiago duela baldintza duineko enplegu erregulatua. Ikuspegi instrumental batetik abiatuta ere: logikoa dirudi jasotako irregulartasunik ez gertatzeko egokiena baimenak berritzea izatea.

Edozein pertsonarentzat lan arrunta eta erregulatua da beti aukerarik egokiena, baita egoera administratibo irregularrean dauden etorkinentzat ere. Izan ere, gizarte-sustraitzea egiaztatzeko eta figura horren bitartez egoitza- eta lan-baimena lortzeko ezinbesteko baldintza da lan-kontratua izatea. Bestela esateko: lan-jarduera informalak ez du balio.

Etorrinek ez dituzte langile espainolak ordezkatu

Espainolek enpleguak galtzen dituzten lanbide gehienetan, atzerritarrek ere enpleguak galtzen dituzte. Hala diote Immigrazioaren Behatoki Iraunkorrek 2009an lan-merkatuari buruz egindako txostenek, lan-kategorien arabera gertatutako enplegu-galera aztertzen baitute. Beraz, krisiak ez du sustatzen langile atzerritarrek langile espainolak ordezkatzeko. Era berean, txosten horretan adierazten da landunen tasa 7,4 puntu jaitsi zela atzerritarren artean, eta 2,5 puntu espainolen artean.

Egungo langabezia-maila ez da eskulanaren ugaritasunaren ondorio zuzena; sortutako enpleguak suntsitutako enplegua ez konpentsatzearen ondorioa da. 80ko hamarkadaren erdialdean,

Espanian ia etorkinik ez zegoenean, langabezia % 20ra iritsi zen eta azken bi hamarkadetan % 10eko mailaren inguruan mantendu da, baita urte onenetan ere. Langabeziak ez ditu jatorriak eta nazionalitateak bereizten.

«Landunen guztizko kopurua % 7,3 jaitsi da urtebetean: % 6,9 espainolentzat eta % 9,3 atzerritarrentzat». Horrela zioen Adecco-ren txosten batek 2009ko hirugarren hiruhilekoari zegokion Biztanleria Aktiboaren Inkestatik ateratako datuetan oinarrituz¹⁶.

Bertakoek nahi ez dituzten eta gizartean gutxien balioesten diren enplegu-nitxoak bete dituzte etorkinek. Soilik krisiaren ondorioz zuzendu zaie begirada etorkinei.

IBIaren¹⁷ arabera, etorkinen lanbide-profila gizarte-ospe txikiena eta kolokatasun-maila handiena duten jardueretan biltzen da, hau da, jarduera nekagarrietan, prekarioetan eta arriskutsuetan (gaztelaniaz «hiru P-z» hasitako jardueretan, “actividades penosas, precarias y peligrosas”); honako hauek dira: etxeko zerbitzua, adineko pertsonen zaintza, ostalaritza, enpresetarako zerbitzuak, eraikuntza-sektoreko kalifikatu gabeko lanak eta abar.

IBIaren 2010eko txostenean adierazten zen sektore ez kalifikatutako eskulanaren % 35,9 biztanleria etorkinari zegokiola.

2010eko AEIaren arabera, Euskadin langile ez-kalifikatu gisa agertzen diren etorkinen ehunekoak % 32,5 da. Ildo horretan, hiru jarduera-adar esanguratsuenak etxeko zerbitzua, ostalaritza eta eraikuntza dira; azken sektore hori bereziki hartu du eraginpean krisiak, eta bertan bildu da gizonen enplegu-suntsipena, batez ere gizon etorkinena.

Etorkinek beren kotizazioen bitartez hazkunde ekonomikoan, aberastasuna sortzen eta Gizarte Segurantzako sistemari eusten laguntzen dute.

EINaren aurreikuspenen arabera¹⁸, joera demografikoek hurrengo hamarkadetan biztanleriaren gehikuntzaren etengabeko murrizketa gertatuko dela adierazten dute. Hurrengo 40 urteetan, 64 urtetik gorako biztanleria bikoiztu egingo dela eta lan-adineko biztanleriak murrizten jarraituko

¹⁶ Adecco (2009), “Los inmigrantes no desplazan a los españoles de sus puestos de trabajo durante la crisis” izenburuko azterlana.

¹⁷ Immigrazioaren Behatoki Iraunkorra.

¹⁸ <http://www.ine.es/prensa/np587.pdf>

duela aurreikusten da. Euskadiko Immigrazioaren Urtekariaren arabera, 2011. urtearen amaieran Gizarte Segurantzaren afiliatutako atzerritarren kopurua 53.000 zen.



GOGOETA EGINEZ...

Etorkinak ez dira haiek sartzen diren lan-sektoreak prekarizatzen dituztenak, sektore horiek etorkinak sartu aurretik ere prekarioak zirelako. Izan ere, aurretiazko kolokatasun-egoerak eragiten du lan-nitxo horietan langile etorkin gehiago izatea, askotan etorkinek ezin dutelako bertako biztanleriarekin lehiatu gainerako eremuetan honako faktore ugari hauek direla-eta: egoera irregularra, baimen motari lotutako murrizketak, kalifikazio desegokiak edo homologatu gabekoak, jatorrian lortutako gidabaimenen gairuntzarekin zerikusia duten zailtasun administratiboak, hizkuntza-oztopoak eta abar.

Kasu gehienetan, etorkinak lan-merkatuaren azken mailetan kokatzera eta azkenak izatera behartuta egoten dira.

Etnien arabera zatikatutako lan-merkatu batek —lanpostuak gizarte-onarpenaren, laneko segurtasunaren eta diru-sarreraren mailaren arabera modu hierarkikoan antolatzen dituenak— ezinbestean lan-poltsa prekarioak izatea eskatzen du. Horrelako agertokian, poltsa horiek, beste kolektibo batzuetako pertsonekin alderatuz, lan- eta soldata-baldintza txarragoak onartzera behartutako pertsonen osatuta daude. Besteak beste, kasu horretan daude eskola-porrota pairatu duten titulaziorik gabeko gazteak edo beren bikotearen soldata egonkorren soldata osagarri bat lortzea espero duten emakumeak.

Azterlan ugari erakusten dute lan bera egiteagatik emakumeek gizonen jasotzen duten soldataren % 20-30 gutxiago jasotzen dutela. Gauza bera esan daiteke gazteek enpresetan ibilbide luzea duten lankideekin alderatuz jasotzen duten batez besteko ordainsariari dagokionez... **Iluspegi horretatik, ez du oinarri handirik gazteei soldata baxuagoak onartzeagatik errua botatzea ezta emakumeei, kolektibo gisa, lan beragatik gutxiago kobratzeagatik ere.** Era berean, ez dirudi oinarri handirik duenik emakumeak, gazteak eta etorkinak lan-merkatuaren prekarizazioaren eragileak direla esatea. Aitzitik, eskubide- eta asmo-murrizketarik onartu ezean enplegurik gabe geratzeko beldurra eragiten duen lan-merkatuaren zatikatzearen lehen biktimak dira aipatutako kolektibo horiek.

Agian, dagokigun alderdia norik noren aurka lehiatzen duen terminoetan planteatu beharrean, komenigarria izango litzateke aurrerapauso bat ematea. Eta adibidez, galdetzea lehiakortasun-logika horrek onurarik ba ote duen, eta baldin badu, norik kapitalizatzen ote duen onura hori.

GOGORATU BEHARREKO FUNTSEZKO ALDERDIAK

Oro har, ez da egia etorkinek eta bertakoek lan-eremu beretan lehiatzen dutela. Kolokatasuna, nekagarritasuna eta arriskugarritasuna ezaugarritzat dituzten zenbait segmentutan lehiatzen dutela, berriz, egia da. Eta hain zuzen ere, antzeko **kalteberatasun-egoeran dauden biztanleriaren beste sektore batzuekin** lehiatzen dute.

Era berean, orokorrean ez da egia etorkinek ospe, kalifikazio eta onarpen sozial handieneko jardun-sektore eta -eremuetan lehiatzen dutenik.

Etorkinek eta bertakoek partekatzen dituzten lan-nitxoetako datuek erakusten dute ez dela ordezkapenik gertatu. Are gehiago: nitxo horietan krisiak gogortasun handiagoarekin astindu ditu etorkinak.

Lan-merkatuan maila baxuenetako batetik sartzea —eta etorkinak izaten dituzten baldintzetan bertan irautea— ez da aukera bat, eta ez du lehiarako abantaila izatea ziurtatzen. **Egoera mota horrek alderdi juridikoei erantzuten die, hala nola maila akademikoa ez onartzea, larrialdi ekonomikoa edo antzeko egoerak.**

Etorkinak bertako biztanleria kalteberenaren pareko bideetatik eta baldintzetan sartzen dira lan-merkatuan. Horiek guztiak lan-merkatuaren zatikatzearen lehen biktimak dira, are gehiago krisi ekonomikoko garaietan.

Arrazoizkoa dirudi honako hau adieraztea: **immigrazioak kasuistatik haratago laneratze-gune eta -ibilbide espezifikoak ditu erreferente gisa, eta, kasu gehienetan, bertako biztanleriaren ibilbideen parekoak.** Beraz, ez da komeni eztabaida langileen arteko lehiaren terminoetan planteatzea, eta gai horretan sindikalismoak zeregin garrantzitsua izan dezake.

Z. 04 - Immigrazioaren ondorioz, matxismoa eta genero-indarkeria areagotu egiten dira

GAUR EGUN | KIROLAK | MUNDUA | IRITZIA | GIZARTEA | KARTELDEGIA | EKONOMIA

Afganistango bi gizon eta emakume bat atxilotu dituzte Gasteizen istiluak eragin ondoren

2009. urtetik Arabako hiriburuan bizi ziren etorkinak merkatalgune bateko guardia bati aurre egin zioten emakume bati aurpegia estalita eramateagatik sarbidea galarazi ziolako

12.03.12 - 11:40 - JUAN PÉREZ | GASTEIZ

Atzo Afganistango bi gizon eta emakume bat atxilotu zituzten merkatal gune baten inguruan. Gertakaria 20:00 aldera jazo ziren hiru atzeritarrek erakinean sartzerakoan. Etorrinak atera hurbiltzerakoan, segurtasun-guardietako bat beren biderean erdian jarri zitzaion sarbidea galarazteko emakumeak niqab bat, hau da, gorputz osoa (aurpegia barne) estaltzen zion jantzia zeramalak.

"Errespetu handiz" segurtasun-guardia taldeari hurbildu zitzaion, eta emakumeari azaldu zion ezin zela merkatal gunean sartu aurpegia oihalarekin estalita zeramala. Une horretan, segurtasun-enplegatuak gogoratzen duenez, bi gizonetako bat bion artean kokatu eta sutsu kekatzen hasi zen, "esateko zer bait baldin bazuen berari esateko eta ez bere emazteari" adieraziz. Ondoren, gizon horrek emakumeari besotik "indarrez" heldu zion eta "atzera baztertu zuen" "bere hizkuntzan" errieta eginez eta "jotzeko moduko keinu mehatxatzaileekin".

Guardiak une hori aprobetxatu zuen laguntza eskatzeko. Berriro azaldu zion gizonari ezin ziela sartzen utzi, eta bere emazteari tratatzeko modu txarra aurpegitatu zion. Une horretan, Afganistango etorkina "sutan jarri zen" eta guardiari oihuka aurre egin zion, berarekin zegoen beste gizonaren laguntzarekin. Zenbait lekukok (gertakaria ikusita leku horretan bildu ziren oinezkoak) adierazi zuten, "oso zaila" zen hitzak ulertzea baina "haserre-keinuak oso adierazgarriak ziren".

Gertakaria hasi eta handik minutu batzuetara, lau udaltzain bertaratu ziren, begiluzeak sakabanatu zituzten eta hiru atzeritarrek atxilotu zituzten polizia-etxean aitortpena hartzeko. Segurtasun-guardiak (oraindik gertakaria zela-eta hunkituta) honako hau adierazi zuen: "Zer gertatu zen jakin nahi zutela, emakumeak bere borondatez edo inposatuta eramaten ote zuen jantzi hori". Era berean, liskarra ikusi zuen pertsonetako batek adierazi zuen bikote hori 2009tik Gasteizen bizi dela eta "oso bikote ezaguna dela auzoan emakumea beti estalita joaten delako leku guztietara, baita merkatura edo haurren bila eskolara ere".

IRUZKINAK

Raúl: Oraindik horretarakorik! Amildegiaren ertzeira hurbiltzen ari gara. Egia esan, ez dut ulertzen jende mota horri nola uzten dioten sartzen.

Silvia: Ni harritzen nauena beraiek hona etorri nahi izatea da, mendealdeko gizarte aurreratu batera. Emakumeak menpean eduki nahi badituzte, hobeto beraien herrialdean geratzea, ezta?

Mikel: Tirai, beharbada premia ekonomikoak matxismoa baino indartsuagoak dira. Hemen bizitzera arriskatzen dira eta emakumea "tontokeriekin hasten bada" etxean masalleko pare bat eman eta kito. Badaezpada ere! burka erre eta feminista egiteko joera har ez dezan!

Amaita: Egoera horiek pena handia ematen didate. Beti emakumeak etortzen zaizkit burura, zer sentituko ote duten guri adats luzeekin, minigonekin eta takolekin ikusten gaituztenean. Injustizia bat eta oso tristea iruditzen zait.

Gorka: Tristea bai, baina injustizia? Ez dakit ba... Gogorarazten dizut emakumeek beren senarrak sala ditzaketela, aske geratu eta hemen babesa eskatu, baina ez dute hori egiten. Gauzak horrela direla eta gizoni zerbitzatzeko jalo zirela sinetsita daude.

Asier: Gorka, ez da Afganistaneraino joan behar horrelako iritziak aurkitzeko. Hemengo emakume askok ere horrela pentsatzen dute.

Ernesto: Hemengo emakumeek? Ia inork ere ez. Baina, zer diozu emakume latindarrez? Emakume horiek ar bat eduki nahi dute beren ondoan, babesteko eta arazoak konpontzeko.

Ana: Baina zer diozu? Ezin duzu horrela orokortu, Ernesto.

Antxon: Ikusten denez, gubi ateratzen zara polita! Joan zailte diskoteka batera eta ikusiko duzu gauzek nola funtzionatzen duten! Txitean-pitean, gizonak elkarren artean liskarrean ari dira batek bestearen emaztegiari gehiegi begiratu diolako, emakumea gizonaren ondasuna balitz bezala.

Zurrumurruaren erradiografia

Horrelako zurrumurruak nola erakitzen diren deskribatzen duen mekanismoa honako hau da:

> **Gizarte homogeneousen** kontzeptu batetik abiatzen da, orokorrean nahiz eremu jakin bati dagokionez. Kasu honetan, gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren kulturatik; kultura hori modu desberdinetan islatzen da: araugarapenetan, gizartearen mobilizazioan eta antolaketan eta abar.

> Eremu edo aldagai horiek —esaterako, ekitate-arloko berdintasuna edo gizarte-sentsibilitatea— **neur daitezke, hau da, mailakatu daitezke.**

> Beraz, kolektibo nazionalen eta talde kulturalen alderaketa generikoa eta hierarkizazioa egin daiteke gizarte hartzailearekiko. Bistakoa denez, alderaketa horretan harrera-gizarteak du abantaila eta berak ezartzen ditu **onargarria eta desiragarria** denaren mugak.

> Desberdintasunak **aldagai kultural eta erlijiosoetatik** abiatuz azaltzen dira. Hortik aurrera, harrera-gizartean etorkinen gehikuntza kuantitatiboa edo nortasunaren indartzea gertatzen bada honako hauek eragiten ditu:

1. harrera-gizartearen aurrerapenekiko eta lorpenekiko mehatxu potentziala (kasu honetan, berdintasunaren eta ekitatearen arloan lortutakoak);
2. desberdintasun-adierazpen ikusgarrienak eta muturrekoenak, genero-indarkeria esaterako, gehitzeko arriskua.

Gizonen eta emakumeen arteko desberdintasuna gizarte guztiei —gizarte garatuei nahiz garapen-bidean daudenei— eragiten dien errealitate orokor eta estrukturala da.

Gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak gizarte guztietan, gizarte-talde guztietan, adin guztietan eta dimentsio anitzetan ikus daitezke. Beste gauza bat da testuinguru soziokultural bakoitzak desberdintasun horien adierazpen zehatzak baldintzatzea eta, beraz, adierazpen horiek desberdinak izatea kasu bakoitzean.

Gizonen eta emakumeen arteko desberdintasuna -eta horretatik eratorritako hainbat errealitate, esaterako, genero-indarkeria, botere-harreman asimetrikoei zuzenean lotuta dago. Harreman mota horiek emakumeen mendetasun- eta kalteberatasun-egoerak finkatzen dituzte modu estrukturalan, emakume horien egoera sozioekonomikoa edozein izanik ere. Hona hemen egitura horien zenbait adibide: familia patriarkala, lanaren sexu-bereizketan eta gizarte-roletan oinarritutako gizarte-egitura, edo sexu baten nagusitasunean eta beste sexuaren mendetasunean oinarritutako kultura-jarraibide tradizionalak.

Eskandinaviako herrialdeek, nahiz eta beren ongizate-maila eta berdintasun-politikak direla-eta inbidia eragiten duten, Europako genero-indarkeriaren **mailarik handienak**¹⁹ dituzte. Eta Frantzia 130 emakume hiltzen dira urtean (Espainiako kopuruaren bikoitza), nahiz eta Frantziako biztanleria Espainiako baino heren bat handiagoa besterik ez izan.

Jakina, datu horiek ez dira errealitatea erlatibizatzeke edo txikiagotzeke erabili behar: genero-indarkeriari dagokion edozein kopuru, maila edo mota higuingarria da. Nolanahi ere, erreferentzia horiek baliagarriak dira honako azpiko uste oker hau zalantzan jartzeko: «araudiaren, ekonomiaren edo gizartearen garapen handiagoak indarkeria matxistaren ekintzen intzidentzia jaistea eragiten du».

Berdintasunaren aldeko edozein estrategiak orokorra izan behar du. Horrek eskatzen du maila guztietan lan egitea, errealitate guztiekin, emakume eta gizonekin, adin guztietan... Gainera, taldeen arteko eta talde barruko aniztasuna kontuan hartu behar da, haien norainokoa, intentsitatea eta erritmoa neurtzeko baina betiere talde jakin bat edo talde bakoitzeko azpitaldeak deabrutu gabe.

Immigrazioa ez da osotasun homogeen bat

Euskadin 180.000 pertsona atzerritar bizi dira —kopuru horren % 50 emakumeak dira—, eta 160 herrialde baino gehiagotatik iritsitaokak dira. Herrialde horietako batzuek gizonen eta emakumeen berdintasunari buruz dituzten araudiak Espainiako eta Europako araudien antzekoak dira. Beste gizarte-adierazle batzuetan ere antzekotasunak dituzte, esaterako emakumearen lanerako benetako sarbidean edo enpresa- edo politika-egituretan emakumeak duen presentzia-mailan.

Emakume atzerritarren ehunekoa desberdina da aztertutako kolektiboaren arabera. Latinoamerikarren kasuan, adibidez, gehienak emakumeak izan ziren lehenik eta bakarrik

¹⁹ <http://www.observatorioviolencia.org/noticias.php?id=2534>

emigratzeko erabakia hartu zutenak. Hori dela-eta, ezin da onartu emakume etorkinak bereizi gabeko eta gaitasunik gabeko osotasun baten gisa hartzea; izan ere, gaitasun horietako bat beren eskubideak aktiboki aldarrikatzea da.

Maiz ahazten dira emakumeak beren jatorrizko herrialdeetan dituzten gaitasunak eta emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko gizarte-erakunde eta -mugimenduen sare konplexua. Mugimendu horiek badaude, garrantzizkoak dira eta nazioarteko lanbidetzaren eremuan lanean ari diren erakundeek – maiz beren lana baldintza bereziki zailetan garatzen dutenek – neurri handian balioesten dituzte.

Euskadin, emakume etorkinez erabat osatutako hamar elkarre daude gutxienez. Emakume horiek beren erreferentziako kolektiboan barneratze-maila desberdinak izan arren presentzia esanguratsua izaten dute beste eremu batzuetan, hala nola elkartze-foroetan edo ahalduntzeko udal-eskoletan.

Datu horien arabera, komenigarria da gutxienez zenbait xehetasun ezartzea eta zenbait uste saihestea, esaterako, immigrazioa gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren arloan aurrera egiteko gure ingurunean dauden dinamiken aurka eta urrun dagoen osotasun edo kolektibo homogeneo gisa hartzen duen ustea.

Immigrazioa ez da izan eta ez da arazo bat;; aukera eta erronka, baizik, berdintasuneko eta sakontze demokratikoko politiketarako

Emakume askoren migrazio-proiektua lehen pertsonan bizi izandako kontakizuna da, baita berdintasunean eta emantzipazio pertsonalean aurrerapenaren lekukotasuna ere. Emakume horiek gure ingurunean ditugun zirkunstantziak baino askoz zirkunstantzia okerragoen aurrean hobetzeko nahiaren eta jarrera proaktiboaren ereduak dira. Esperientzia horiek gure gizartearen edozein gizon edo emakume, bere jatorria edozein izanik ere, sensibilizatzeko balio dute, eta horretarako aprobeitatu daitezke.

Gakoa ez da errua botatzea gizarte-talde jakin bati, baizik eta gero eta gehiago sakontzea pertsona guztiengana iritsi ahal izateko ahalegin eta estrategietan. Berdintasunaren arloan guk ditugun aurrerapenak ez dituzten kultura- eta arau-inguruneetatik datozen emakumeen presentziak (baita gizonenak ere, azken batean, berdintasun-arloko aurrerapenak benetakoak izateko gizonen eta emakumeen artean sendotu behar dutelako) gure arteko gogoeta sustatu behar du.

Gizarte-dinamiken terminotan, emakume espainola modu azkar eta zabalean lan-merkatuan sartzea neurri handi batean emakume etorkinen presentziari esker gertatu da. Emakume etorkinek beren gain hartu dituzte etxeko zerbitzuaren edo adinekoak eta haurrak zaintzearen zereginak. Hau da: emakume etorkinak iristeak aipatutako gizarte-prozesua erraztu eta azkartu egin du, eta ez ahuldu; beraz, galderak ez du izan behar immigrazioak gelditzea eragin duen ala ez, baizik eta gizarte-justiziaren izenean nola sakondu daitekeen laneratzeko eta berdintasuneko prozesuan, eta nola zabal daitekeen prozesu hori gizarte-talde guztietara, baita emakume etorkinen taldera ere.

Berdintasunaren arloko aurrerapenak sendotzea bermatzen duen sentsibilitate politikoa eta aplikazio unibertsaleko arau-esparrua badago

Europar Batasunaren helburuetako bat emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea da. Itun, ebazpen, zuzentarau eta jardun komunitarioko programen bitartez EBk jarraibideak, neurriak, akordioak eta gomendioak hartu eta eman ditu berdintasunaren arloan.

Euskadin Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Otsailaren 18ko 4/2005 Legeak²⁰ emakumeen diskriminazioaren fenomenoari modu orokor eta multisektorialean ekiten dio eta aldi berean diskriminazio hori adierazten duten eremuak nabarmentzen ditu: parte-hartze soziopolitikoak, hezkuntza, lana, kultura, komunikabideak, osasuna, indarkeria eta abar.

Beraz, badago arauak eta politikak osatzen duten erreferentzia-esparru bat administrazio publikoen ekintza-gaitasuna ziurtatzen duena eta eremu pribatuetan berdintasun-printzipioa kaltetzeko aukerak txikiagotzen dituena. Beste gauza bat da berdintasun-printzipioa, utziezina den aldetik, jardunak pertsona eta gizarte-talde desberdinen zirkunstantzietara egokitzea ahalbidetzen duten estrategien bitartez aplikatu beharko dela: bizi-erreferentzietan, abiapuntuetan, ibilbideetan eta abarretan desberdinak direnei berdintzatzea da diskriminaziorik handiena.

Orokorrean, pentsamendu-korronte eta araudi desberdinek egokitze- eta malgutasun-estrategia horiek biltzen dituzte eta aplikatzerakoan erritmo eta intentsitate desberdinak onartzen dituzte. Hau da, erreferentzia modura, benetako berdintasuneko etorkizun argia hartuz, aipatutako korronte horiek edozein gizarte-desberdintasun aterkitik ateratzeko aitzakiazat hartzea saihesteko joera izaten dute beti.

²⁰ <http://www.euskadi.net/bopv2/datos/2005/12/0807143a.pdf>

Hori dela-eta, komeni da gogoratzea berdintasun-politikek gure gizarteko diskriminazio historikoetako bat, sexuagatikoa, gainditzeko neurriak garatzen dituztela eta era berean, berdintasun-politika hauek, pertsona guztien eskubideen eta askatasunen defentsa alde batetik, eta bestetik, jatorria, estatus soziala, sinismenak, adina eta antzeko zirkunstantziak direla-eta egindako diskriminazioen debekua arautzen duten printzipio beretan oinarrituta daudela.

Emakume etorkinei eragiten dien genero-indarkeriaren kasua

Azken urteetako kopuruen arabera, emakume atzerritarrek bertako emakumeek baino arrisku handiagoa dute beren bikotekide edo bikotekide ohiengandik tratatu txarrak jasotzeko edo haiek hiltzeko. Are gehiago: arrisku hori murriztu beharrean, gehitzen ari da. Azalpen kulturalista da gehien errepikatzen dena baina aldi berean, azalpen hori da sendotasun gutxienekoa eta gutxien egiaztatu dena. Zentzuzkoagoak dira beste mota bateko jarrerak:

Generoan oinarritutako indarkeria matxista transkulturala da, munduko leku guztietan gertatzen da eta ez du mugarik ezagutzen, hainbat erlijio, lege eta kulturaren mugak gainditzen baititu. Alabaina, emakume etorkinek genero-indarkeriaren estatistiketan duten gairik gabeko eragile publikoak eta gizarte zibila inplikatzeko dituzten honako ildo honetan gogoeta egitera: biztanleriaren sektore horretan arriskuak edo kalteberatasun-faktoreak gehitzen dituzten berariazotasunen inguruan²¹.

Emakume etorkinak kalteberagoak bihurtzen dituzten faktore gisa eta indarkeria-egoerekin amaitzeko eta egoera horiek salatzeko borondatea mugatzen duten faktore gisa, honako hauek aipa ditzakegu:

- **Egoera administratiboa.** Egoera irregularrean dauden emakumeek ez dute egoitza-baimenik eta legalki, salaketa bidez beren egoera erregularizatu badezakete ere, eta horrela «genero-indarkeriako emakume biktimaren ezohiko zirkunstantziagatik egoitza-baimena» lortu, emakume gehienek kanporatuak izateko beldurra gairik gabeko behar dute. Beldur hori prozesu horien oinarrian dagoen logika juridikoa ez ezagutzen dator. Berriz elkartutako emakumeei dagokienez, emakumeen egoitza-baimena ezkontideen egoitza-baimenari lotuta dagoen kasuetan emakumeek ez dakite tratatu txarren biktima izanez gero egoitza-baimen independentea eskatzeko aukera dutenik.

²¹ Rubio (2004). "Guía de empoderamiento de la mujer inmigrante frente a la violencia de género", http://www.observatorioviolencia.org/upload_images/File/DOC1268660761_Guia_Violencia_Genero_2010.pdf

- **Migrazio-dolua.** Migratzen duten emakumeek, herrialde berri eta ezezagun batean eta etxea eta lana bilatzeko zailtasunekin, gizarte-sare prekarioak izaten dituzte eta beren familietatik eta betiko lagunengandik urrun daude. Migrazio-dolua bakardadearekin, migrazio-proiektuak porrot egin izanaren sentimenduarekin eta beldurrekin areagotu egiten da, eta horrek kalteberagoak egiten ditu emakume etorkinak.
- **Estatuko legedia nolakoa den ez jakitea.** Gainera, emakume horiek askotan ez dute indarkeria mota horri buruzko legediaren berri izaten, ezta informaziorik ere problematikari, ondorioei, baliabideei eta babesten dieten eskubideei buruz. Sarritan, hemengo errealitatearekin eta gizartearekin duten lotura bakarra beren erasotzailea izaten da.
- **Indarkeria ulertzeko modu desberdinak.** Immigrazioa ezin da osotasun homogeen gisa hartu eta, beraz, emakume etorkinak ere ez, denetik dago: ikasketekin eta ikasketarik gabe, lanbide kalifikatuei loturiko migrazio-proiektuekin eta kalifikaziorik gabeko lan-nitxoei loturiko migrazio-proiektuekin, hiri-jatorrikoak eta landa-jatorrikoak... Beraz, emakume etorkinen artean euskal emakumeen artean egon daitezkeen adina modu daude indarkeria ulertzeko eta horri buruzko iritzia emateko eta modu horiek denak aldagai beren eraginpean daude. Hau da: ikuspegi desberdin horiek hobeto azaldu daitezke dira emakume bakoitzaren izaeraren arabera nortasun kulturalaren, etniaren edo jatorriaren arabera baino.
- **Ingurune esanguratsuak ez ulertzea.** Familia- edo gizarte-sarea handiagoa den kasu batzuetan, ohikoa izaten da inguruneak ez ulertzea emakumearen harremanarekin amaitzeko erabakia. Maiz, erabakiaren terminoak dikotomikoak izaten dira: edo indarkeria-egoera jasaten dute erreferentzia-sare horri (beharbada bakarria) eusteko, edo erasotzailearekiko harremana amaitzen dute, kasu horretan ere erreferentzia-sarea galtzeko arriskuarekin.
- **Isolamendua eta erasotzailearekiko emozio-mendetasuna.** Lehenik gizona iritsi eta ondoren emakumea berriz elkartu den kasuetan, ingurunea, hizkuntza edo gizarte-jarraibideak ez ezagutzeak gizarte-harremanak mugatzen ditu eta erasotzailearekiko mendetasuna eragiten du. Horrela, emakume batzuek pertsona batekiko harremana soilik izaten dute: erasotzailea, eta pertsona horrekiko mendetasun handia izaten dute.
- **Mendetasun ekonomikoa.** Familia eta etorkin-bikote asko antzeko ereduaren arabera osatu dira: lehenik hilde bat iristen da lan-aukera batekin eta ondoren, ezkontidea eta seme-alabak berriz elkartzen ditu. Horrek berriz elkartutako ezkontidearen mendetasun ekonomikoa dakar eta hori harreman asimetrikoak sortzeko haztegi egokia izaten da.

- **Rol-aldaketa.** Familia eta bikote horiek maiz genero-rolak egoera eta gizarte berrira egokitzeko prozesu bat jasaten dute. Rol- eta estatus-aldaketak indarkeriazko adierazpenekin (intensitate handikoak edo txikikoak) batera gerta daitezke. Egoera horrek garrantzi berezia hartzen du familia berriz elkartzeko prozesuetan.

Begi bistakoa denez, faktore-zerrenda hau ez da oso zehatza, ezta esklusiboa edo kolektibo guztietako emakume etorkinei orokortu daitekeena ere, baina ikuspegi erabateko kulturalistek hartu duten garrantzia erlatibizatzen lagun dezake.

Gizon etorkinak, kategoria kolektibo gisa, ez dira nahitaez bertako gizonak baino matxistagoak eta zakarragoak.

Gizon guztiak desberdintasuna eta emakumeen mendetasuna —batzuetan, baita esplotazioa ere— ezaugarritzat zituzten testuinguru patriarkaletan sozializatu dira. Nolanahi ere, egia da zenbait lekutan gehiago aurreratu dela emakume eta gizonen arteko berdintasunaren inguruko sentsibilizazioan.

Kultura-testuinguru desberdinek zehazten dituzte nolabait ere mendetasun- eta indarkeria-adierazpenak. Argi dago adierazpen batzuk erkideak direla matrize patriarkal beretik datozelako baina beste batzuk ez, adibidez:

1. lan-jazarpena ohikoagoa da emakumea lan-merkatuan modu orokorrean sartu den gizarteetan, eta ez da hain ohikoa emakumea lan-merkatura oraindik sartu ez denetan edo emakumeak laneko gune berezietan dauden gizarteetan.
2. publizitatearen amu gisa emakumearen erabilera sexista gauzatzea ohikoagoa da sexu-moral hertsiki batekiko haustura-prozesua (nolabait eta itxuraz) izan duten gizarteetan. Beste gizarte batzuetan, emakumearen gorputza eremu publikoan ikusgai egotea saihestea da ohikoena.

Ziur asko ñabardurak ezarri ahal izango dira, baina adierazitako guztiak mendetasun- eta esplotazio-moduak dira. Luis Bonino-k horrela adierazten du ²² :

Indarkeria ez da gertaera isolatuen batura baizik, eta mendeen hartzeko eta kontrolatzeko ahalegin-prozesu batean erabilitako derrigortze-tekniken multzoa; teknika horiek gure kultura sexista patriarkalean sozializatutako ia gizon guztiek gauzatzen dituzte maila desberdinetan.



GOGOETA EGINEZ...

Gure artean emakume etorkinak izateak —baita gizonak ere, nahiz eta maila txikiagoan— zenbait alderdi erraztu ditu, esaterako, etxeko lanak banatzea, inoren laguntza behar duten pertsonak zaintzea edo lan- eta familia-bizitza uztartzea. Aipatutako zeregin horietan, sarritan kolokatasuneko lan- eta soldata-baldintzetan ordezkatu dituzte emakume etorkinek euskal emakumeak.

Argitu beharreko eztabaida da **bertako emakumeen ahalduntzea zein neurritaraino gertatu den Latinoamerikako emakumeek beren gain etxeko lanak hartzeari esker**; hau da, zein neurritaraino nazioz gaindikoa zaintzaren kateak desberdintasunaren kateak ere badiren.

Emakume etorkinek euskal emakumeen ahalduntzean lagundu dute, baina, beharbada, haien zeregina urrutirago doa. Haien lanari esker, bertako familien eraketa berriko tentsio asko saihestu edo murriztu egin da, baita uztartze-arloko gizarte-politiken garapen eskasetik eratorritako ezkutuko gatazka ere. **Emakume etorkinen taldeak, baliabide gisa eta bere parte-hartzeari esker, problematika horiek eremu publikora azalartzea saihestu du.** Emakume horiek gabe, administrazio publikoei uztartzearen, mendetasunaren arretaren eta pertsonen zuzendutako zerbitzuen inguruko politika gehiago eskatuko litzaieke.

Gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren arloan, legediak eta legedi horiek nola betetzen diren alderatzea edo konstituzio-printzipioen inguruko kulturak alderatzea ariketa hutsala da testuinguru desberdinetako baldintzak kontuan hartuta. Esaterako:

- Zurrumurru honen oinarri den mekanismo bera erabiltzen badugu, ezin izango litzateke antzekoa esan 65 urtetik gorakoei buruz, hain zuzen ere gaur egun berdintasunaren arloan

²² Obstáculos a la comprensión y a las intervenciones sobre la violencia (masculina) sobre las mujeres en la pareja, Luis Bonino (2004).

dauden printzipio, jarraibide eta araudietatik nahiko urrun dauden une historiko eta kulturaletan sozializatu eta beren bizitzaren zati handi bat bizi izan dutenei buruz?

- Pentsa dezagun segmentu horrek biztanleriaren guztizkoan duen garrantzi erlatiboari buruzko datu demografikoan, nola bilakatu den azken hamar urteetan —etorkin gehien iritsi diren aldiak— eta nola bilakatu den hurrengo hamar urteetan... norik egingo luke adinekoak berdintasun-arloan aurreratzeko oztopoa izan direla edo izango direla dioen diskurtsoaren alde? Modu legitimoan norik lotuko luke adineko pertsonen kopuruaren handitzea eremu horri benetako gelditzea eragitearekin?

Genero-indarkeriaren biktima diren emakume etorkinen kopuruak interpretatzerakoan, kopuru larriak eta aipatutako kalteberatasun handiagoko egoerarekin koherenteak izanik ere, komeni da genero-indarkeria horren gehitze-faktore gisa immigrazioa hartzearen pertzepzioan eragina duten zenbait alderdi planteatzea. Emakume etorkinak genero-indarkeriaren biktimen estatistiketan duten gaindimentsioaren kontzeptua erabiltzen da gaur egun, baina kontzeptu horrek zenbait arazo sortzen ditu:

- Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Estatuko estatistiketan, autonomia-erkidegoetako estatistiketan bezala, nazionala edo atzerritara izatea soilik hartzen da kontuan. Pertsona batek nazionalitate espainola ez izatea laukitxo jakin batean jasotzen da, hemen bizi izan den denbora edo hemen jaio eta beti hemen bizi izan den edo antzeko faktoreak kontuan hartu gabe. Zenbateraino onar daiteke hemen jaiotako erasotzaile batek familia-jatorri atzerritarra badu ere, «immigrazio gehiago = genero-indarkeria gehiago» loturaren kontzeptua indartzea? Gainera, zenbateraino da arrazoizkoa lotura hori determinismo kulturalistaren bidez azaltzea?
- Emakume bat genero-indarkeriaren biktima den bakoitzean ez da aldeztu suposatu behar kaltegile edo erasotzailea ere etorkina dela; izan ere, askotan gizon hori bertakoa da. Beharrezkoa da biktima eta erasotzailea zuzenaz bereiztea baita erasotzaileak bereiztea ere; bestela, honako ideia hau indartzen da: «gizon eta emakume haien» arazoa dela eta ez «gure (gizon eta emakume)» arazoa. Indarkeria beti ez dela talde nazional edo etnia-talde berean gertatzen agerian jartzeak desberdintasuna eta genero-indarkeria fenomeno estrukturalak direnaren nozioa indartzen du. Denon arazoa da.

GOGORATU BEHARREKO FUNTSEZKO ALDERDIAK

Immigrazioa euskal gizarteko gizonen eta emakumeen arteko berdintasun-prozesuetan aurrera egiteko gelditzea edo oztopoa izan beharrean, funtzionala izan da prozesu horietako batzuetan, hala nola bertako emakumeak lan-merkatu arruntean sartzeko edo familiako, zaintzako edo ugalketako zereginetarako dedikazioa murrizteko.

Alabaina, «zaintzaren nazioz gaindiko kateak» izateak eta kate horietan eskala globaleko desberdintasun-ereduak errepikatzeak ez du eragin behar eztabaidaren terminoak bertako emakumeak errudun sentiaraztera eramatea —etorkinak beren emantzipazio pertsonal eta profesionalerako erabiltzen baitituzte— ezta emakume etorkinak ere —prozesu horiek bizimodu duin bat lortzeko erabiltzen baitituzte—. Ez. Eztabaidaren ardatzak leku berean kokatzen jarraitzen du: emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna eta sexuaren araberako lan-banaketa eta rol tradizionalak gainditzea. Eztabaida horretan, immigrazioa ez da elementu nagusia baina immigrazioak eztabaidari dimentsio globaletik heltzen eta horrela ulertzen lagundu behar du.

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren gaian nahiz indarkeria matxistaren gaian determinismo kulturala alde batera utzi behar da: kultura oso kontzeptu zehatzugabea da eta erabilera generalistak are kontzeptu lausoagoa bihurtzen du. Kultura beste elementu bat da, baina ez da, inolaz ere, denaren azalpena ematen duen elementua. Beraz, errealitatean ikertzeko eta sakontzeko koartada gisa balio beharko luke.

Datuen arabera, zenbat eta gizarte eta berdintasun-politika garatuagoak izan, orduan eta genero-indarkeria kasuen intzidentzia handiagoa gertatzen da gizartean. Horren adibide dira Eskandinaviako herrialdeak; bertan, emakumeen % 40 baino gehiago izan da gizonen baten indarkeriaren biktima, nahiz eta herrialde horiek berdintasun-politiken garapenaren eredu diren.

Nazioartean aspalditik onartzen da **emakume etorkinek kalteberatasun bikoitza dutela**, emakumea izateagatik eta etorkina izateagatik. Emakume etorkin irregularren kasuan, kalteberatasun hirukoitzeko egoeran egongo ginateke. Egoera horrek agerian jartzen du generoaren ikuspegia migrazio-politika guztietan integratzeko premia.

Emakumeen aurkako indarkeriak bi sexuen arteko botere-harremanekin lotura zuzena du, eta hainbat eremutan adierazten da: gizarte-eremuan, ekonomia-eremuan, erlijio-eremuan eta politika-eremuan. Garrantzitsua da honako hau azpimarratzea: **arazoaren jatorria ez da individuala, soziala eta estrukturala baizik, eta, gainera, arazo multidimentsionala da eta ezin da modu isolatuan ulertu.**

Z. 05- Etorkinek ez dute integratu nahi

GAUR EGUN | KIROLAK | MUNDUA | IRITZIA | GIZARTEA | KARTELEDGIA | EKONOMIA

Kulturen VII. Jaialdia egin da Donostian eta inoiz baino bisitari gehiago izan dira

Gipuzkoako hiriburua mapamundi bizidun bihurtu zen atzo, 3.000 atzerritarrek baino gehiagok euskaldunekin partekatu baitzuten beren kultura-aberastasuna

12.03.12 - 11:40 - JUAN PÉREZ | DONOSTIA

Donostiako kaleak kolorez, zapozez eta alaitasunez bete ziren kulturarteko jairik jendetsuenean. Atzo Kontxako Pasealekuan egin zen Kulturen VII. Jaialdian, hirian bizi diren hainbat jatorritako milaka etorkin elkartu ziren, eta beren musika, gastronomia eta eskulanak erakutsi zizkieten euskaldunei egun osoan.

57 nazionalitate, 60 postu eta 3.000 atzerritar inguru. Horiek dira atzoko festa laburbiltzen duten zenbakiak, nahiz eta zifrak hotzeziak diren topaketaren berotasuna adierazteko. Donostian bizi diren milaka etorkinek sakontasunez jardun zuten Euskadiko beren bizilagunekin; azken horiek postuetan ibili ziren, plater desberdinak dastatu zituzten eta saltsa, tangoa eta merengea dantzatzera animatu ziren.

Donostiako Udalak, Eusko Jaurlaritzak eta etorkinen hogeita hamar bat elkartek antolatutako Jaialdiak hirian gaur egun dagoen kultura-aniztasun handia ezagutzera hurbildu zirenen arreta eta interesa erakarri zuen. "Pozik gaude gure nortasunaren zati bat parteka dezakegulako egunero, etxean bezala, hartzen gaituztenekin. Nolakoak garen eta gure jatorrizko herrialdeak nolakoak diren erakustea eskerrak emateko eta kulturartekotasuna sustatzeko modu bikaina da" adierazi zuen Peruko Pedro Espinosak, ekimen horren bultzatzaileetako batek.

IRUZKINAK

Begoña: Oso jai polita izan zen, benetan. Atzo han barrena ibili nintzen nire senarrarekin eta seme-alabekin, eta oso ondo pasa genuen.

Luis: Ba niri zatarrak iruditzen zizaidan. Jendearen paseoa oztapatzeaz gain, beren janariak eta musikak erakutsi zizkiguten bazter guztietan. Nahi izan gabe ere, entzun egiten zenituen. Urtero berdin.

Josemi: Segi horrela! Etorkinen beste jaiak bat beren gauzak abesteko eta dantzatzeko. Eta zer gertatzen da gurea denarekin? Saltsa, merengea eta beste leku batzuetako folklore asko, baina zer gertatzen da gure kulturarekin? Gure kulturak ez al du axola? Gubioa balio ote du?

Claudia: Jakin nahi al duzue zer den kulturarteko integrazioa? Nik azalduko dizuet oso argi. Kulturartekotasuna beste herrialde batzuetako 'janari gozoak' nahitaez irenstea da, baina osagaiak guk ordainduta.

Paco: Oraindik ez dut ikusi etorkin horietako bakar bat ere euskal jaietara hurbiltzen. Ez ote dute gure kulturarekiko interesik? Edo ez ote dute gurea den ezertan parte hartzeko interesik ordaintzen ez badiete?

Edurne: Argi dago ez dutela integratu nahi. Beren gauzetarako beti daude prest. Gure gauzetarako, ordea, inoiz ez. Eta hori ez da jaialdi horiekin soilik gertatzen. Egutero gertatzen da. Beren diskoteketara joaten dira, beren musika entzuten dute, beren arropa erabiltzen dute, beren janaria jaten dute eta abar. Horrela ezinezkoa da ezer trukitzea, zerbitzuak eta dirua izan ezik.

Juan: Hori duk-eta! Euskadi tropikalak. Klima-aldaketari eta biztanle berriei esker, euskal kulturatik ez da ezta itzala ere geratuko. Ikusiko duzue nola bukatuko dugun denok batxataren soinuarekin dantzatzen, kus-kusa jaten eta txabola txikiak egiten balapartetatik geratzen denarekin.

Ana: Zuk esandakoa negargarria eta zentzugabea iruditzen zait, Juan. Nik uste dut jaialdi horiei esker gure hirian dagoen gauza on eta berri guztiak ezagutu ditzaitezula. Gauzak ikasteko aukera ematen digute; esate baterako, mundua nolako den jakiteko. Bai, "mundua", horixe da zuri falta zaizuna.

Juan: "Mundua" nahi badut, bidaia bat egiten dut, adiskidea. Horretarako daude hegazkinak eta turismo-bulegoak, ez, ordea, gure hiriko itsas pasealekua.

Zurrumurruaren erradiografia

- > Abiapuntua da integrazioaren kontzeptua alderdi kulturaletara murriztea: nahasi egiten dira **integrazioa** eta **kultura-homogeneotasuna**.
- > Gauzak horrela, etorkinen ondorioz, galdu egiten da harrera-gizartearen balizko homogeneotasuna. Galera hori mehatxu bat da. Galeraren muina kultura-eremua izaten da, eta nortasunaren higadura gisa edo erlijio-mehatxu gisa zehazten da. Horregatik, bertako biztanleriak «kultura integraezinez» hitz egiten du askotan.
- > Zurrumurruaren funtsa mota honetako asoziazioetan datza: «berritasunak aldaketa esan nahi du», «aldaketak galera esan nahi du» edo «zenbat eta heterogeneotasun handiagoa izan, orduan eta gizarte-kohesio txikiagoa». **Asoziazio-kate hori** mehatxuzko pertzepzioa eta diskurtso prototipikoa izaten da, eta hori gizarte guztietan ohikoa bada ere, eduki desberdinak ditu talde edo pertsona bakoitzak lehenesten duenaren arabera. Batzuentzat, mehatxua handiagoa izango da kultura-nortasunean; beste batzuentzat, aldiz, erlijio-nortasunean, politika-nortasunean, hizkuntza-nortasunean edo nortasun zibikoan.
- > Oro har, erreferenteak ez dira berehalakoak, epe ertainean edo luzean diseinatzen diren prozesu historikoak edo egiturazkoak baizik. Esate baterako, berdintasuna lortzea, aurrera egitea laikotasunean edo erakuntza nazionala. Erreferente horiek **interpretazioaren eta balioespenaren esparruan** agertzen dira, eta esparru horrek errealtate jakin bateko datuak zabaldu eta handizkatu egiten ditu. Ohiko hainbat esamoldek, esate baterako «... jaten bukatuko dugu guztiok», «Azkenean ... gehiago izango da ... baino», «... lortzeko egin ditugun ahalegin guztiak ezerezean geratuko dira», «... (e)ra iristeko egin behar izan dugun guztia, eta orain berriz ere atzera» eta antzeko beste batzuek pertzepzio hori biltzen dute eta, gainera, **justifikatu gabeko autopertzepzio** bat adierazten dute, harrera-gizarteek aldaketako beren prozesu historikoak bideratzeko eta horien protagonista izateko gai ez direlako autopertzepzioa.
- > Horren ondorio gisa (edo, beharbada, estrategia gisa): a) **gu eta haiek sortzeko diskurtsoak** indartu egiten dira, barneko eta kanpoko homogeneotasuna kontzeptu absolutu bihurtzen da, eta talde eta gizarte orori atxikitako aniztasuna ukatzen da; b) absolutura igotzen da arauzkoa denaren balioa gizarte-aniztasuna eta -heterogeneotasuna mugatzeko eta baldintzatzeko arma gisa.

Etorquinek ez dute nortasun-talde homoginoa eratzen, eta ez dituzte integrazio-prozesuak baztertzen

160 nazionalitate bakoitza gehiagotatik etorritako pertsonak bizi dira Euskadin. Eta herrialde beretik etorritakoak badira ere, pertsona horietako asko talde etniko, hizkuntza-talde edo erlijio-talde desberdinetakoak dira. Hau da, kolektibo bakoitzak bere jatorrizko herrialdean dagoen aniztasuna erakusten du, halaber.

Nolanahi ere, *etorkinaren* kategoria dimentsio juridiko eta ekonomikoekin lotuta dago, baina askoz gutxiago nortasun-dimentsioekin. Talde baten nortasunaren *bizkar-zorroa* definitzeko erabiltzen ditugun elementuak kontuan hartzen baditugu, ikusiko dugu kolektiboen artean heterogeneotasun handia eta alde esanguratsuak daudela. Alde horiek etorkinak eta bertakoak edo bertakoek talde desberdinak erkatzen ditugunean bezain handiak edo horiek baino handiagoak dira.

Pertsona talde handi bat bere jatorriaren edo egoera administratiboaren arabera bereizteko balio dezake etorkinaren kategoriak. Baina ez da garrantzitsua nortasun-dinamikak aztertzeko. Etiketa hori alde batera uzten badugu, Euskadin bizi diren etorkinen % 6,6k ez du euskal nortasunari kontrajarrita dagoen edo harekin bateraezina den talde homoginoa osatzen. Aitzitik, Euskadin dagoen aniztasuna aberasten, konplexu bihurtzen eta areagotzen duten ekarpenen eta xehetasunen multzo bat osatzen du, baina inondik inora ere ez du sortzen.

Konplexutasunaren oinarritzko printzipio bat: immigrazioaren harrera-gizarteak (horien artean euskal gizartea) ez dira homoginoak kultura-nortasunari dagokionez, ezta immigrazioaren edo kultura-aniztasunaren inguruko iritziak izateari dagokionez ere.

Nolanahi ere, edozein gizartetan kultura-nortasunaren erreferente batzuk ados badaitezke ere, definizioz, gizarte oro konplexua eta anitza da eta aldatzen ari da etengabe. Baita euskal gizartea ere. Identitate konplexutasunak bera norbanakoengana heltzen da.

Beharbada, ez dugu horrenbeste kezkatu behar integrazioarekin eta gehiago indartu behar dugu kohesioa. Beste arrazoi batzuen artean, oso konplikatua izango litzatekeelako integrazioa eta gizarte-sektore guztiek onartuko dituzten eta etorkinak bideratzeko balio izango duten nortasun-ereduetarako erreferenteak ezartzea. Etorquinek helburu desberdinak edo baliabide heterogeneoak dituzte, baina harrera-gizartea osatzen dutenen abiapuntua ere desberdina da iristen diren pertsonak nola, zer intentsitatekin edo zer epetan integratu behar diren ulertzerakoan.

Euskal gizartea erreferente mota handi batek eratzen du, eta erreferente horiei esker konbinazio asko egin daitezke nortasun-atxikipenei dagokienez. Horrela nahi izan dute barne-immigrazioko eta emigrazioko prozesu historikoek XX. mende osoan. Honako hauek dira prozesu horien adibide batzuk: gizartea pixkanaka sekularizatzea, erlijio- eta sexu-askatasunaren alorreko aurrerapenak, gizonen eta emakumeen arteko gizarte-harremanen etengabeko eraldaketa, egun dagoen aukera politiko zabala edo EBn integratzea.

Pertsonak nahi duten bezala definitzen dute bere burua, eta bereizten dira ez dituztelako ideologiaren, erlijioaren edo sexualitatearen alorreko balio berak partekatzen beti. Beraz, pertsona bat nazionalista izan daiteke eta ez-nazionalista den beste pertsona baten erlijio-atxikipen bera izan dezake, sexu-orientazioaren askatasunaren defentsa bera egin dezake, euskal kulturarekiko konpromiso bera izan dezake, gutxiengoaren defentsa bera egin dezake edo lan-eskubidearen alorreko antzeko kontzeptua izan dezake. Edo bi pertsona horiek eta bere burua ateotzat daukan norbaitek iritzi bera izan dezakete gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren aldeko borrokari dagokionez. Hau da: nortasunaren edo partaide izatearen dimentsioak edo erreferenteak ez ezik, horien arteko konbinazio desberdinak ere aintzat hartzen baditugu, ezin da esan euskal gizartean nortasun egonkorra eta homogeneoa dagoenik, ezta gizarte horren inguruneko antzeko gizarte bakar batean ere, beharbada.

Pertsonen nortasuna hainbat atxikipen abiapuntutzat hartuta eratzen da. Horren ondorioz, nortasun konplexuak sortzen dira, eta nortasun horiek horrela ulertuta, ez dira osotasun bateraezina, bateragarritasunak eta antzekotasunak ez ezik, aldeak, toki komunak eta xehetasunak ere badaudelako.

Egokiena aldatzen ari den eta beti prozesuan dagoen agertoki batean sortzen ari diren nortasun konplexuei buruz hitz egitea da, eta agertoki horretan, gustatzen ez bazaigu ere, talde arteko eta talde barruko gatazka gerta daiteke

Gure eta *haien* arteko harremana, gizarte osoa eratzen duena, ezin da absolutua izan, eta ezin da gutxietsi. Era berean, ezin da ukatu, gizartean eragiten duelako eta taldeak, desberdintasunak eta aldeak sortzen dituelako. Konstante antropologikoa, unibertsala eta estrukturala da.

Hura desagertzea eskatzea intentzio onekoa izan daiteke, baina ez da oso baliagarria. Beste gauza bat da desberdintasuna naturalizatzea eta absolutu bihurtzea, atemporal bilakatuz. Prozesu sozialak horixe dira: prozesuak. Historikoak eta gerta daitezkeenak dira, eta beraz, dinamikoak eta aldakorak. Are gehiago, nortasunen eremua eta horien naturalizazioa absolutu bihurtzearen atzean, botere-harremana legitimotzat hartzeko asmoa dago.

Nortasunak gauza bihurtzea errealitate soziala eta pertsonen errealitatea murrizteko ariketa da; planteamendu horrek ez du zerikusirik nortasun pertsonala eta kolektiboa eratzeko prozesuen aberastasunarekin eta konplexutasunarekin. Pertsona guztiak gauza asko gara eta esparru askotatik definitzen gara, aberastuz eta gure bizi-zikloan aldatuz, esperientziekin elkarriketan eta bizi garen testuinguruetan.

Nolanahi ere, inozotasuna izango litzateke nortasun nazionala huskeria dela uste izatea, zeren nortasun horrek banandu baitu munduko errealitatea, eta geografia zatikatzeaz gain, elkartasuna ulertzeko modua ere ezartzen baitu. Elkartasuna oso errotuta dago soziologiak «nazionalismo metodologikoa» deitu duen horretan; printzipio horren arabera, Estatu bat dagoen tokian, nazio bakar bat, kultura bakar bat eta gizarte bakar bat dago, elkartasun-loturen muga gisa eratzen dena.

Logika hori gainditzea ez dago borondatearen baitan soilik. Hainbat mailatan aldaketak egitea ere eskatzen du: egokitze batzuk tokiko, nazioko edo nazioz gaindiko nortasunetan eta norberaren gauzetan, Amin Maalouf-ek aipatzen duen funanbulismo lasaian bezala: «Identitate sinplistetan bezain gutxi sinesten dut konponbide sinplistetan. Mundua makina konplexua da, eta bihurkin soil batez ezin da desmuntatu».

Erne egon behar dugu arrazakeria sotil mota berri bat sortzen ari delako; izan ere, arrazen desberdintasuna kulturara eramanez, hainbat kolektiboren «integrazintasun kulturalaren» tesi sinesgarria goratzen du arrazakeria horrek.

Tesi horretan, oro har, oinarrizko eta uko ezinezko bi printzipioren arteko elkartze txarra proposatzen da: berdintasuna legeen aurrean eta desberdintasunerako eskubidea, eskubideen eta betebeharren berdintasuna eta berdintasunezko tratua jasotzeko eskubidea, pertsonen eta taldeen desberdintasunak kontuan hartzen dituen.

Immigrazioaren harrera-gizarteetan, berdintasun juridikoaren eta kultura-desberdintasunaren artean dagoen sintesi bertutetsuaren aurkako iritziak izaten dira; erlatibismo kulturaren inguruko ikuskera txarretik sortzen diren iritziak. Carlos Giménez-ek²³ biltzen duenaren arabera, praktika guztiak ez dira onargarriak kulturalak direlako, eta halaber, ezin da justifikatu aniztasunaren arauzko egokitzapeneko politikak ez arautzea:

Esan dezagun aitzinetik giza eskubideen defentsan muturreko erlatibismo kultural oro gainditu behar dugula, emigrazioaren gizarteetan, immigrazioaren gizarteetan edo llogian bertan eskubide horiek urratzen dituen praktika oro –ustez kulturala dena edo benetan kulturala dena– baztertuz. Toleranteak izateak ez du esan nahi edozein praktikarekin ados gaudenik, baimentzen dugunik edo onartzen dugunik, antzinakoa, tradizionala edo berezia izan arren.

[...] aniztasun soziokulturalaren aurrean arauak egokitzeko prozesuak jarri behar dira abian; izan ere, arau asko immigrazioa izan aurretik ezarri ziren. Beraz, edo arau horiek ez daude egokituta, edo ez dago errealitate sozialean sortutako alderdi berri askori buruzko inolako araurik.

Ilido horretan, harrera-gizarteek ezin dute:

- Indarrean dagoen apurra, minoritarioa edo garrantzi gutxi duena ezdeusarekin nahasi;
- Praktika edo ezaugarri kultural bat guztiarekin parekatu;
- Jatorrizko kultura harrera-gizarteetan osorik errepika daitekeela pentsatu, edo
- Etorfinek egokitzeko gaitasuna dutela erabat ukatu.

Etorfinken taldeen kasuan, ez da komenigarria:

- Berdintasunaren printzipioa bermatzen duen aniztasun-esparrura egokitzeko zailtasunak etsaitasunaren, irainen, arbuioaren edo diskriminazioaren adierazgarri direla uste izatea,

²³ Giménez Romero, C. **Qué es la inmigración**, RBA-Integral, Madril, 2003, 84 or.

- Absolutu bihurtzea norberaren desberdintasuna egokitzea lortzeko, giza eskubideen berdintasunaren, unibertsaltasunaren eta nagusitasunaren printzipioak, hots, edozein araugarapenen egiaztapena diren printzipioak kontuan izan gabe,
- Aurrerapena era orekatuan eta iraunkorrean eragozte, bai helmugako gizarteei eskatzen zaien aldea kontuan hartzeari dagokionez, baita taldeen arteko aniztasuna kontuan hartzeari dagokionez ere.

Kymlickaren arabera: «[...] talde edo kolektibo orok eskubidea izan behar du bere nortasunari eutsiko zaiola bermatzeko, baina, era berean, eta lehenik eta behin, errespetutsua izan behar du taldearen jarraibideari jarraitu nahi ez dion hilde ororekin». Esan daiteke legeek bi gauzak sustatu eta babestu behar dituztela.

Horrenbestez, araei dagokienez nahiz eguneroko bizitzari dagokionez, integrazioa prozesu iraunkorra eta dinamikoa da, harrera-gizarteari eta etorkinei dagokiena.

Askotan, etorkinen integrazioa asimilazio-prozesutzat hartzen da, eta prozesu horretan, pertsona horiek bizi diren gizartearen «kultura» hartu behar dute (kultura hori modu homogeenan eta absolutuan ulertuta; askotan, arauetara murrizten dena) eta beren kulturari uko egin behar diote.

Integrazioaren ikuspegi irekiago bat —Estatuko politikaren nahiz euskal politikaren iturri dena kultura-aniztasunaren hudeaketari dagokionez— azaltzen da *Etorkinak Europar Batasunean integrazeko politiketarako oinarritzko printzipio komunak* (2004) biltzen dituen dokumentuan. Aipatutako dokumentua Europar Batasuneko Kontseiluak eta estatu hidaeetako Gobernuen ordezkariak onartu zuten 2004ko azaroaren 19an. Dokumentu horretan, honela definitzen da integrazioa: «prozesu bidirekzionala eta dinamikoa, etorkin guztiak eta estatu hidaeetan bizi diren pertsona guztiak elkarri egokitzeko baliagarria».

Adierazpen horretan funtsezko hiru ideia daude:

1. Integrazioa **noranzko biko** prozesu gisa, hau da, etorkinei eta harrera-gizarteko hidaei eragiten diena.
2. Integrazioak **elkarri egokitzeko** eta **errealitate berrira egokitzeko** ahalegina dakar
3. Integrazioa **denboran luzatzen** den prozesu sozial dinamikoa da, etengabe errepikatu eta berritu beharrekoa.

Integrazioa ukapenekin eta norazko bakarreko ahaleginekin lotzen badugu, «kultura-asimilazioaz» hitz egin beharko dugu. Prozesu horretan besteak bere baliabide kulturalak ingurune berriarekin ordeztu dituzte integrazioa —beti benetakoa eta eraginkorra ez dena— lortzeko berdintasun-egoeran. Beraz, eta integrazio kontzeptuak erabateko zentzua izan dezan, prozesu hori erantzunkidetasun, koprotagonismo eta lankidetzaren gisa ulertu behar da.

Integrazioa bateraezina da alde bateko lagapenekin eta a priori norberaren nortasun indibiduala eta kolektiboa ukatzearekin.

Errealitatea absolutua eta dikotomikoa den zerbait bihurtzea —haiek eta gu kontrajartzea— eta gurea dena gure ingurunean moldatzeko onena eta funtzionalena dela balioestea ernamuin egokiak dira harrera-gizarteak besteari eskatzeko norantzko bakarreko jarrerak har ditzala.

Hainbat arrazoi daude etorkinak integratzeko dituen ahalmenak eragozteko:

- Bere taldearekiko atxikipen apurtezina,
- Absolutu bihurtzea gizartearen hurrengo izatearen sentimendua,
- Nortasun-oinarria soilik duten elkarreragineko eta laguntzako gizarte-sareak sustatzea, eta
- Harrera-gizarteak eta gizarte horren erakundeek —alde bakarrekoak eta akritikoa— berezitasun kulturelei eta nortasunaren arlokoiei egokitzea eskatzea.

Integrazioak ihes egin behar du polarizaziotik eta dena edo ezereza soilik onartzen duten iritzietatik. Pertsonak —guztiek— lankidetzan jarduteko eta gogoeta autokritikoaren etengabeko ahaleginari zentzua emateko elementu komunak bilatu behar dituzte. Ahalegin horrek bizirikidetzarako elementu disfuntzionalak baztertu egin behar ditu norberaren baliabideetatik. Horrez gain, autokritika horrek ihes egin behar du oinarrietatik eta absolutuetatik, eta, beraz, ez da errenuntziatzat hartu behar, baizik eta norberarena denari eusteko eta aberasteko balio beharko du, eta dinamikoa eta hobetu daitekeen zerbait izango da.

Begi bistakoa denez, integrazioan borondatea elementu garrantzitsua da baina eraginkorra izateko baldintza materialak ere behar dira.

Immigrazioaren aurkako diskurtso gupidagabe guztietan, oro har, erredukzionismoa agerian jartzen da. Ikuspegi mugatu hori honetan datza: integrazio-prozesuaren arrakasta (eta emaitzak) soilik etorkinen borondatearekin lotzea: «Ez dira integratzen ez dutelako nahi» diote diskurtso horiek, eta aldi berean, erantzukizunik gabe uzten dituzte harrera-gizartea eta bere erakundeak.

Enplegurako sarbidea, eskola-arrakasta, hizkuntza ofizialetan aritzeko gaitasuna, gizartean parte hartzea edo laguntza-sareak garatzea beharrezkoak dira. Eta, integrazio-esparru batean, horiek guztiak harrera-gizarteko administrazio publikoen eta gizarte-eragileen erantzukizuna dira.

Beraz, integrazioa ikuspegi multidimentsional batetik ulertzen da. Hori dela-eta, integrazioaren rudeaketa politika publiko sektorialen nahiz espezifikoen diseinuan txertatu behar da. Horrela jasota dago hirugarren herrialdeetako nazionalak integratzeko Europako esparru erkidean, Atzeritarrek Espainian dituzten Eskubide eta Askatasunei, eta haien gizarteratzeari buruzko 4/2000 Lege Organikoan bertan; Lege horretan honako erreferentzia hauek azpimarratzen dira:

- Etorkinak Espainian erabat integratzea ahalbidetu behar dute botere publikoek eta etorkinen eta bertakoen arteko bizikidetzeta eta gizarte-kohesioa bermatu.
- “Administrazio Publikoek integrazioaren helburua txertatuko dute etorkinen eta harrera-gizartearen artean, politika eta zerbitzu publiko guztietan zeharkakoa izanik”.

Integrazio-ezintasunaren diskurtsoaren hiru euskarriak honako hauek dira: bestearen borondateari lotutako erredukzionismoa, integrazioarako beharrezkoak diren baldintza materialak ezkatzea eta integrazioa nortasun- eta kultura-alderdiak soilik kontuan hartuta sinplifikatzea.

Eredu are konplexuagoa eta oportunitate handia: euskal gizartea

Dagokigun gaia euskal gizartean konplexutasun handiagokoa da, euskal gizartean kolektibo batean egoteko modu legitimo desberdinak onartzen direlako eta norberaren eta norberaren herrialdearen ikuspegiaren definizio desberdinak biltzen direlako. Testuinguru horretan aniztasuna hudeatzea zailagoa eta problematikoagoa izan daiteke. Eta hori kontuan hartuta ekin behar zaio gaiari; izan ere, aurreko puntuko printzipio guztiak aplikatu dakizkioke baina oinarrian (zati batean behintzat), nagusitzen diren nortasun-proposamenen arteko borroka sinbolikoko agertokia dagoela onartzea ezinbestekoa da. Aparteko zailtasun hori dagoela konturatzeak irtenbide sinplistik baztertzeko lagundu behar du.

Euskal nortasunari edo nortasunei buruzko eztabaidak gogoetak eta kontraesanak eragiten ditu (eskuliburu honek ez du horiek konpontzeko asmorik), baina biztanleria etorkin gehiago iristean (orain arte ez da problematikoegia bihurtu) dagokigun eztabaida areagotu egiten du.

Ilido horretan, euskal gizarteak honako bi aukera hauek ditu: aukera bat da jarrera eta leku erhundeetara itzultzea eta bestea, kohesioan eta integrazioan oinarritutako eztabaidari aurre egitea. Eztabaidak gizarte osoari irekita egon beharko du, epe ertain eta luzera bideratua; bestalde, eztabaidak adostasunak bilatu beharko ditu eta prozesuen epe, eritmo eta intentsitateari dagokienez, ñabardurak daudela onartu.

Barne-aniztasunaren hudeaketaren esperientzia ikasteko aukera eta iturria izan daiteke. Horrela adierazten da **«Immigrazioaren aldeko Itun Soziala Euskadin»** izenburuko itunari buruzko dokumentuan:

Ez da erraza etorkizunerako aurreikuspenak egitea. Dena den, bada gauza segururik: bihurtu Euskadi gaur egun ere badena baino gizarte askotarikoagoa izango dela. Aniztasun hori ez da atzerriko immigrazioaren ondorioa. Gizarte moderno guztien ezaugarri bereizgarria da aniztasuna: bizi-baldintzen eta bizimoduaren aniztasuna, identitate nazionalen aniztasuna, kultura-eta kosmoikuspegi-aniztasuna eta abar Euskadi ere beti izan da herrialde askotarikoa, historian zehar erlijio, hizkuntza eta kultura desberdinak elkarrekin bizi izan diren herrialdea. Aniztasuna gure historiaren eta gure identitate kolektibo propioaren zati da. Atzerritarren immigrazioak areagotu egin du euskal gizartean lehendik ere bazen aniztasuna, eta konplexuago bihurtu du. Horregatik, aniztasun berriek ez dute zertan ustekabea izan euskal herritarrentzat. Aitzitik, euskal herriaren esperientzia historikoak lagungarri izan beharko litzaiguke elkarbizitzari erantzun hobea eta egokiagoa emateko, betiere bereizgarri izan genuen aniztasun-mailan oinarrituta²⁴.

Euskadiko integrazioari buruzko datu batzuk

- **Enplegua.** Euskadin landun gisa azaltzen diren etorkinen ehunekoa % 70 da. Beraz, bertakoen kasuan gertatzen den moduan, etorkinen lehen helburua ere enplegua da.
- **Hezkuntza.** 2010-2011 ikasturtean 30.405 ikasle atzerritar zeuden euskal hezkuntza-sisteman; kopuru hori errolatutako biztanleria atzerritarren % 20 da. Beste datu esanguratsua da 16 urte edo gehiagoko biztanleria atzerritarren % 19,5ek ikasketa motaren bat egiten duela.

²⁴ **Immigrazioaren aldeko Itun Soziala** Euskadin. Elkarbizitzaren aldeko konpromisoa (2011).

- **Hizkuntza.** Ama-hizkuntza gisa Euskadiko hizkuntza ofizialetako bat ez duten atzerritarrak ondo jabetzen dira integrazioarako hizkuntza ikasteak eta ondo erabiltzeak duen garrantziaz; gaitasun hori gabe, badakite enplegua lortzeko aukerak murrizten zaizkiela eta isolamendurako edo beste pertsona batzuen mende egoteko arriskua dutela.
- **Gaztelania.** Etorकिन % 81,4k dio hizkuntza hori ondo edo oso ondo menderatzen duela. Helduen Eskolak eskaintzen dituzten gaztelaniazko ikastaroak, batez ere laneratzeari bideratutakoak, eskari handia izaten dute eta batzuetan, gainezka egoten dira. Gizarte-erakundeetatik eta etorkin-elkarteetatik sustatutako eskaintzan ere ikusten da dagokigun gaiarekiko interesa.
- **Euskara.** Oro har, etorkin helduak euskara gaztelania baino askoz gutxiago daki. Gainera, segmentu horren adina kontuan hartuta eta jadanik hezkuntza-sisteman sartuko ez dela jakinda, argi dago euskararekiko egoera hori luzatu egingo dela. Errealitate horretan, euskal herritar ez euskaldunen kasuan gertatzen den modura, faktore askok dute eragina: lan-arloak, hizkuntza nagusia jakiteak, etorkinak bizi diren tokietako errealitate soziolinguistikoak eta abarrek. Beraz, euskararekiko hurbilketa gure hizkuntza indartzeko eta euskal gizartean presentzia gehiago izateko moduari buruzko gogoeta batetik abiatuta antolatu behar da.
- **Ghettoak eta eliteak.** Euskarari dagokionez, ez dirudi zentzuzkoa eliteen praktika kulturalak klase ertaineko etorkinaren praktikekin parekatzea, horiek ez direlako praktika kulturalak baizik eta klase-praktikak. Oso kaudimendunak soilik bizi daitezke gizarte-igogailurik gabe. Eliteko eskolak ez dira ghettoak, baizik eta euskal gizartetik banatutako gizarte-talde bat.
- **Parte-hartze soziala.** Euskadin etorkinen 150 elkarte daude erregistratuta. Erakunde horiek hainbat zeregin betetzen dituzte:
 1. beren gizarte-oinarriari harrera ematen eta laguntzen diote;
 2. jatorrizko herrialde eta eskualdeetako kulturari eusten diote;
 3. erkidegoko, lurraldeko eta herriko foroetan parte hartzen dute;
 4. administrazioekin eta bestelako gizarte-erakundeekin lankidetzan aritzen dira, esaterako, kulturaren zabalkundeetan eta bizikidetzarako sentsibilizazioan, pertsona iritsi berriei harrera egiten eta orientatzen, profesionalak eta boluntarioak prestatzen eta abar.

- **Toriko kultura.** Alderdi azpimarragarria da etorkinek harrera-gizartean indarrean dauden jokabide-arauak eta –kodeak ezagutzen eta errespetatzen dituztela. Horregatik normaltasun osoz onartzen dituzte ordutegiak, egutegiak, ospakizunak, elkarrekintza-kode formal eta informalak eta abar. Hala badagokio, aipaturiko arau eta kodeak zalantzan jarri gabe, etorkinek beren berezko ospakizunak ospatzea eta horietan parte hartzea eska dezakete puntualki.
- Bukatzeko **AEIaren zenbait datu** gizarteratzeari buruz²⁵,
Eorkinen % 87r badu bertako biztanleriari buruzko aldeko balorazioa (etorkinekiko %56,4).
%80,8k bere burua nahikoa gizarteratuta ikusten duela aitortzen du.
Biztanleriaren %76,7k EA Erekin nahiko maila altuan identifikatzen direla dio, %46,1 nahiko identifikatuta, %26,9 asko identifikatuta eta %3,8k nortasun ikur nagusia Euskadi dela dio.

GOGOETA EGINEZ...

«Integratu nahi ez duen etorkina» diogunean, pentsatu beharko genuke kategoria horretan bertan biltzen ote ditugun honako hauek guztiak ere:

- Beren gurasoen jatorrizko kulturen erreferentzia eskasekin hemen hazi diren gazteak,
- Laguntza eta ahalduz bila elkartzen diren emakume etorkinak (baita beren berezko talde kulturalekiko ere),
- Osakidetzan lan egiten duen atzeritar jatorriko medikua,
- Bere fedean oinarrituta Elizaren ospakizunetan parte hartzen duen sinestun katolikoa,
- Klase-sindikatu batera afiliatutako agnostikoa,
- Sexu-joerako askatasunarekiko murrizketei aurre egiten dien emakume lesbiana eta abar.



²⁵ 2010eko AEI (2011). EAEn bizi diren atzerriko etorkinen gaineko inkesta. Emaizte buruzko txosten orokorra, Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila, 2011.

Beti zaila izaten da nortasun-erreferenteak ezartzea, hain zuzen ere, kultura eta nortasun desberdinen pertzepzio monolitiko eta homoginoa sortzeko arriskua dagoelako. Hemen eskolatutako jatorri atzerritarreko nerabe batentzat zein dira erreferente esanguratsuak? Zeintzuk ordezkutzen dute hobekien euskal nortasuna: laikotasunaren aldekoek edo bizitza publikoan erlijioak presentzia izatea defendatzen dutenek, ezkerrekoek edo eskuinekoek, sexu-joeraren askatasunaren aldekoek edo eredu heterosexual tradizionalaren jarraitzaileek?

Nolanahi ere, ez da komeni horrelako galderek eragin dezaketen erlatibismo inozaan erortzea — erreferente gisa eragiten duten nortasun nagusi bat edo batzuk badaude—; baina bestalde, ezta gauza absolutu bihurtzea ere; izan ere, **integrazioa ez da kulturarekin eta nortasunarekin zerikusia duten alderdietara mugatzen eta integrazioaren zati handi errealtate materialean garatzen da.**

Nortasuna –eta batez ere nagusi den nortasuna– hainbat kapitalen batura da: kapital ekonomikoa, politikoa, soziala eta kulturala. Normalean gailentzen diren nortasunak eta nortasun estigmatizatuak daude. Hori horrela gertatzen da, ez da iritzi bat.

Beste migrazio-esperientzia batzuk aztertzen badira, kultura-ezaugarri propioei eustea eta harrera-gizartean benetan integratzea bateragarriak ez direla esatea argudio ahula izaten da. Jar dezagun adibide gisa euskal emigrazioa: euskaldunek emigratu dugun herrialdeetan, Euskal Etxeak edo Eusko Jaurlaritzako Ordezkaritzak sustatuz nortasunaren ezaugarri propioei eustea eta benetako integrazioa bateragarria izan bada, ez dirudi zentzuzkoa pentsatzea estrategia horiek — sentimendua, sareak sortzea, kolektibo-kontzientzia indartzen dutenak edo deserrotze soziala eta kulturala saihesten dutenak— eraginkorrak izango ez direnik Euskadira iristen diren etorkinentzat. Euskal etorkin baten hasuan, bertutetzat eta integrazioaren eragiletzat hartzen duguna ezin da mehatxua edo oztopoa izan guk jasotzen dugun etorkin baten hasuan.

Talde-nortasunaren ezaugarriei eustea eta ezaugarri horiek indartzea eta birsortzea emigratzen dutenen benetako integrazioarako bektorea izan daiteke. Era berean, immigrazioaren harrera-prozesuak erraztu ditzake: nortasun trinko eta finkatu batek mehatxu-sentimenduei hobeto aurre egin diezaieke. Gainera, nortasun solidarioagoa izango da.

Gutxienez, helburu gisa adostasunak bilatu beharko genituzke, esaterako elebitasuna (hemendik urte batzuetara beharbada, hirueletasuna). Hala ere, baliteke prozesuen epe, erritmo eta intentsitateari dagokienez, ñabardurak izatea.

Amaitzeko, «Euskadiko Immigrazioaren aldeko Ituna: bizikidetzaren aldeko konpromisoa» lantokumentuaren paragrafo batzuk aipatuko ditugu:

Gehiegitan, ereduak sorrarazten dituzten teorizazio konplexuetatik abiatuta lantzen dugu etorkinen integrazioa, sarritan eguneroko errealitatera hurbiltzea errazten ez duten teorizazioetatik, alegia. Agian gauza zehatzetatik, eguneroko bizitzatik abiatuta hasi beharko genukeen integrazioan pentsatzen. Ezohiko alderdietan pentsatzeak daukan arriskua zera da, etorkinak eta bertakoak funtsean desberdinak direla pentsa daitekeela beti. Eta hori ez da egia. Guztiok humanitate-oinarri bera dugu, eta nahi, ideal eta esperientzia unibertsalekin identifikatzen gara horren ondorioz. Bizimodua duintasunez ateratzea, maite ditugun pertsonekin bizi ahal izatea, bizi garen komunitateen ongizatean eta garapenean arduraz laguntzea, gure bizitzarekin zerikusia duten prozesuen inguruan erabakitzeak ahalmena izatea, autonomia eta errespetua izatea... horiek guztiak bizipenak eta nahiak dira, betetzen direnean gizarte jakin bateko erabateko kide garela sentitzea ahalbidetzen digutenak.

Hori dela-eta, ahalegin handia egin behar dugu beste edozein gizakiren eskarrietan, premietan eta arazoetan gure burua ikusteko. Etorkinek beren nahiak edo asmoak —politikan parte hartzeko, gizarte-onespena lortzeko, iritzia adierazteko— azaltzen dituztenean, haien lekuan jartzeko gai izan behar dugu. Nahi eta asmo horiek ez dira beste edonork izan ditzakeenen desberdinak. Horiek egiteari buruzko eztabaida beti izango da humanoagoa, baina baita eraginkorragoa ere, hurbiltasunetik eta ulerkuntzatik planteatzen bada, elkarriketa egungo bitarteko eta baliabideen gain planteatzen bada haiek betetzeko, eta ez eskaeren gain bere horretan hartuta.

GOGORATU BEHARREKO FUNTSEZKO ALDERDIAK

Integrazioa nortasun-homogeneotasuna baino askoz gehiago da eta kultura-alderdietatik haratago dago. Etorikinek egunero egiten dute beren bizitzako ia alderdi guztietan integrazzeko ahalegina: denboraren kontrola, bizimoduak, etxe motak, lana, bizilagunen komunitatea, bizi diren auzoa, seme-alaben eskola, telebistan ikusten dutena eta egunkarietan irakurtzen dutena, elikagaiak, seme-alaben elikadura-azturak, gurasoenekiko desberdinak, gizarte-harreman motak, hitz egiten diren hizkuntzak eta abar...

Gauza bat dira pertzepzioak, diskurtsoak eta horiek eragindako jarrerak eta beste gauza bat benetako praktikak. **Eguneroko terminotan esateko, immigrazioa beti integrazio aktiboko prozesuan dago, eremu publikoan nahiz pribatuan adierazten da,** nortasun eta pertenezia anitzeko jokoan oinarritzen da eta bilakaerako eta belaunaldien arteko izaera du: denboran zehar eta belaunaldi batetik bestera aldatu egiten da.

Euskal gizartearen kasuan, termino erredukzionistak eta sinplistik kontuan hartuta ere, atzerritarren jatorri eta egoera desberdinetakoen % 6,6ko ehunekoak eragin mugatua du nortasun-markatzaileetan. Kanadarrek diotenez, integrazioa ibaiaren korrante nagusiaren arabera gertatzen da, eta korrante nagusi hori bertako biztanleriak markatzen du.

Alabaina, korrante nagusi horren barruan ere, beharrezkoa da barne-aniztasun bat onartzea; barne-aniztasun horrek integrazioarako balio duten adierabakarreko eta partekatutako erreferenteak ezartzea zailtzen du baina ez du aitzakia izan behar etorkinek gizartean elkarreteraginik ez izateko edo batera egote soila justifikatzeko (bertako gizartearekiko inolako zerikusirik ez duten egunerokotasuna garatuz).

Badakigu azaldutako egoera hori ez dela enpirikoki gertatzen, baina teorikoki justifikatzea ere ez da komenigarria. Hau da, ez asimilazionismorik, ez diferentzialismorik; edozein gizarteren nortasuna finkatzeko prozesu historikoek integrazioko eta dibertsifikazioko prozesu bikoitz batera eramaten badute, pentsatu behar da etorkizunean ere horrela gertatuko dela eta horretarako, egokitzapen arazoituak eta gizarte-hitzarmenak beharko direla.

Kohesioak, integrazioak eta gurutzatutako larriminen ezabatzeak bat egin behar dute egokitzapen arazoituen, adostutako doitzeen eta neurri instituzionalen bitartez. Horretarako ez dira arazo partikularrak modu interesatuan orokortu behar.

Eta are gutxiago, oinarririk gabeko zurrumurruek onartu.

7. Bibliografia

ARANGO, J. (2007), *Las migraciones internacionales en un mundo globalizado: tendencias y políticas en Inmigrantes*, El continente móvil. Vanguardia Dossier, nº 22 (enero-marzo 2007). Barcelona: Vanguardia Ediciones, pp. 6-15.

Eskuragarri Interneten:

http://www.ugr.es/~masteragot/docs/material/O1_%20joaquinarango.pdf

[2012/03/20an kontsultatu zen]

— *Derechos sociales, ciudadanía e integración*, hainbat egile: Inmigración y derechos de ciudadanía. Tercer Seminario Inmigración y Europa, Fundación CIDOB. Bartzelona: Edicions CIDOB. 119.-125. or.

BONINO, L. (2004) *Obstáculos a la comprensión y a las intervenciones sobre la violencia (masculina) contra las mujeres en la pareja*, Indarkeriaren Psikologiako Espainiako Elkartea.

Eskuragarri Interneten:

<http://www.luisbonino.com/pdf/Obstaculos%20a%20la%20comprension.pdf>

[2012/03/20an kontsultatu zen]

BAI 2011ko 4. HIRUHIL.: *EINaren Biztanleria Aktiboaren Inkesta* (2011ko laugarren hiruhilekoa).

Eskuragarri Interneten: <http://www.ine.es/daco/daco42/daco4211/epa0411.pdf> y

<http://www.ine.es/daco/daco42/daco4211/epapro0411.pdf>

[2012/03/16an kontsultatu zen]





Erkidegotik kanpoko immigrazioaren inpaktu ekonomikoa EAEn, Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritz.

Eskuragarri Interneten:

<http://pdf.bakeaz.efaber.net/entry/content/35/estudio.impacto.economico.pdf>

[2012/03/14an kontsultatu zen]

2010eko AEI (2011). *EAEn bizi diren Atzerriko Etorkinen gaineko Inkesta*. Emaitzei buruzko txosten orokorra, Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila, 2011.

Eskuragarri Interneten:

Gaztelaniaz.

http://www.gizartelan.ejgv.euskadi.net/r45-docuinfo/es/contenidos/informe_estudio/epie2010/es_epie2010/adjuntos/EPIE_2010_cas.pdf

Euskaraz.

http://www.gizartelan.ejgv.euskadi.net/r45-docuinfo/eu/contenidos/informe_estudio/epie2010/eu_epie2010/adjuntos/EPIE_2010_eus.pdf

[2012/03/18an kontsultatu zen]

GIMÉNEZ Romero, C (2003). *Qué es la inmigración*. Madril: RBA-Integral, 84. or.

GGT 2009: *Giza Garapenari buruzko Txostena 2009*. Oztopoak gaindituz: giza mugikortasuna eta garapena, NBE.

Eskuragarri Interneten:

<http://hdr.undp.org/es/informes/mundial/idh2009>

[2012/03/14an kontsultatu zen]

Immigrazioaren, Herritarren eta Kultura arteko Bizikidetasunaren III Euskal Plana 2011-13 (2011). Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren Immigrazioko eta Aniztasuna Kudeatzeko Zuzendaritza

Eskuragarri Interneten:

http://www.gizartelan.ejgv.euskadi.net/r45-continm/es/contenidos/informacion/planes_estrategicos_inmigracio/es_planes/adjuntos/III%20Plan%20Inmigracion%20Ciudadania%20Convivencia%20Intercultural.pdf

[2012/03/21ean kontsultatu zen]



Ikuspegi@k (2011). *Ikuspegi Barometroa 2011. Atzerriko etorkinei buruzko pertzepzioak eta jarrerak*, Ed. Elektronikoa: Ikuspegi@k – Gizarte Gaietako Behatokia.

Eskuragarri Interneten:

Gaztelaniaz

http://www.ikuspegi-inmigracion.net/documentos/barometros/2011/bar_2011_cas.pdf

Euskaraz

http://www.ikuspegi-inmigracion.net/documentos/barometros/2011/bar_2011_eus.pdf

[2012/03/16an kontsultatu zen]

Gobernuko Presidentearen 2006rako Txosten Ekonomikoa (2007). Madril: Gobernuko Presidentearen Bulego Ekonomikoa.

Eskuragarri Interneten:

http://www.abc.es/gestordocumental/uploads/economia/IEPG_2007Completo.pdf

[2012/03/16an kontsultatu zen]

KYMLICKA, Will, *Derechos Humanos y Justicia Etnocultural*, Eva Pecino Rosado-ren itzulpena, Debats, Valentzia, ISSN 0212-0585, 68. zk., 2000, 46.-64. or.

MORENO, G. eta Aierdi, X. (koord.): *Euskadiko Immigrazioaren 2010eko Urtekaria*, Ikuspegi@k - Immigrazioaren Euskal Behatokia, Bilbo.

Eskuragarri Interneten:

http://www.ikuspegi-inmigracion.net/documentos/anuarios/anuario_2010_cas_ok.pdf

[2012/03/16an kontsultatu zen]

NIESSEN, J. eta HUDDLESTON, Th. (2010): Politikak formulatzearen arduradunei eta profesionaleri zuzendutako integrazioari buruzko eskuliburua, Luxenburgoko Europar Batasuneko Argitalpen Bulegoa, 160.-161. or.

Eskuragarri Interneten:

<http://www.migracat.cat/document/5bd23ae2f140f3e.pdf>

[2012/03/16an kontsultatu zen]

Genero-indarkeriaren Behatokia: <http://www.observatorioviolencia.org>





RIVAS TORRES, M. (2011.II.22) *Las nórdicas, las más maltratadas*.

Eskuragarri Interneten:

<http://www.observatorioviolencia.org/noticias.php?id=2534>

[2012/O2/27an kontsultatu zen]

Immigrazioaren aldeko Itun Soziala Euskadin. Elkarbizitzaren aldeko konpromisoa (2011).

Eskuragarri Interneten:

http://www.euskadi.net/r33-19246/es/contenidos/noticia/pacto_2011/es_pactosoc/PACTO%20SOCIAL%20POR%20LA%20INMIGRACION.pdf

[2012/O3/22an kontsultatu zen]

PAJARES, M.(2009): *Immigrazioa eta Lan Merkatua*. 2009ko Txostena; IBI, Lan eta Immigrazio Ministerioa.

Eskuragarri Interneten:

[http://extranjeros.meys.es/es/ObservatorioPermanenteInmigracion/Publicaciones/archivos/](http://extranjeros.meys.es/es/ObservatorioPermanenteInmigracion/Publicaciones/archivos/Inmigracixn_y_mercado_de_trabajo_Informe_2009.pdf)

[Inmigracixn_y_mercado_de_trabajo_Informe_2009.pdf](http://extranjeros.meys.es/es/ObservatorioPermanenteInmigracion/Publicaciones/archivos/Inmigracixn_y_mercado_de_trabajo_Informe_2009.pdf)

RUBIO CASTRO, A. (2004) *Guía de empoderamiento de la mujer inmigrante frente a la violencia de género*.

Eskuragarri Interneten:

http://www.observatorioviolencia.org/upload_images/File/DOC1268660761_Guia_Violencia_Genero_2010.pdf

[2012/O3/14an kontsultatu zen]

— (2007). La capacidad transformadora del derecho en la violencia de género. Circunstancia. Ortega y Gasset Unibertsitate Institutuaren gizarte-zientzietako aldizkaria, 12. zkr. (Aldizkari elektronikoa).

<http://www.ortegaygasset.edu/web-orritik/berreskuratua>

Hainbat egile (2011): Etorrinek zerbitzu eta prestazioetara duten sarbidea, *Euskal Autonomia Erkidegoan*.

Donostia: Arartekoa.

Eskuragarri Interneten:

http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/2_2610_3.pdf

[2012/O3/16an kontsultatu zen]

— (2008): *Erkidegotik kanpoko immigrazioaren inpaktu ekonomikoa EAEn, Gasteiz*: Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila.

Eskuragarri Interneten:

<http://pdf.bakeaz.efaber.net/entry/content/35/estudio.impacto.economico.pdf>

[2012/O3/14an kontsultatu zen]



- (2011): *La contribución de la inmigración a la economía española. Evidencias y perspectivas de futuro*. Madrid: Fundación Ideas.
Eskuragarri Interneten:
http://www.fundacionideas.es/sites/default/files/pdf/1-La_contribucion_de_la_inmigracion-Ec_O.pdf
[2012/03/16an kontsultatu zen]

XARXA BCN Abtirumors
<http://bcnantirumors.cat>





**IMMIGRAZIORAKO
ITUN SOZIALA
EUSKADIN**

Elkarbizitzaren aldeko konpromezua

**PACTO SOCIAL
POR LA INMIGRACIÓN
EN EUSKADI**

Un compromiso común por la convivencia

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco